



ARGIA

M8 Bizitza grebara

» AHUAKATEAREN NEGOZIOA: MEXIKOKO NEKAZARIAK NARKOEN ETA GOBERNUAREN ATZAPARRETAN

» MENDEBALDEA PLASTIKOZ GAINEZKA: TXINAK MUNDUAREN ZABORTEGI EZ IZATEA ERABAKI DU

» ZINEMA (H)ABIAN: IKASLEAK ZINE ZUZENDARI BIHURTZEN DITUEN EKIMEN AITZINDARIA LASARTE-ORIAN



"ELS CARRERS SERAN SEMPRE NOSTRES" kamisetak ARGIAAn salgai

Kamiseta hau erosita, 2 euroko ekarpena egingo diozu Kataluniako La Directa herri hedabideari, eta 2 euroko ekarpena ARGIAri, Kataluniako independentzia prozesua epe ertainera ere zorrotz jarraitu ahal izan dezan.



**Informaziorik gabe ez dagoelako demokraziarik,
kazetaritzan ere sustatu independentzia!**

ESKAERAK

www.argia.eus/azoka | azoka@argia.eus | ☎ 943 371 545

PANORAMA

- 4 Asteko argazkia
- 6-9 Albisteak
- 7 Fauna publikoa
- 10 Pekinek Mendebaldeari: "Ito zaitezke zeuen plastiko zikinetan"

IRITZIAK

- 17 June Fernández
- 18 Mikel Basabe
- 19 Kimetz Arana
Itxaro Borda



Narkotrafikatzaileak jabetu ziren ahuakatea metanfetaminak baino diru gehiago ematen zuela. Kuota kobratzen hasi ziren.

- 38 DENBORAREN MAKINA
- 40 BIZI BARATZEA
- 42 ARGIAKO AZOKA
- 43 ARGIA KOMUNITATEA
- 47 ARTEA
- 48 KULTUR KRITIKA
- 50 ZUZENKO EMANALDIA
- 51 DENBORA-PASAK
- XX ARGI-KONTRA:
ANDER BERROJALBIZ
- 54 BERANDUEGI

AZALEKO IRUDIA: DANI BLANCO

SAKONEAN

- 12 | Selva Almada: "Alferkeria iruditzen zait testua atera bezala uztea" / Danele Sarriguarte Mochales
- 20 | M8 greba feminista: Bide luze baten abiapuntua / Ilazki Gainza Giraldo
- 26 | Ahuakatea: Urre berdea / Ane Irazabal Elkorobarrutia
- 30 | *Potere al Popolo* hautagaitza Italian, ezkerren esperantza / Xuban Zubiria Elexpe
- 32 | #NiSiCGL traola, irlandeari buruzko aurreiritziak salatzen / Dabi Pietra
- 34 | Ontzineda auzia Lizarran: Zor bidegabearen ekaitz perfektua / Urko Apaolaza Avila
- 36 | Euskalipeto eta pinu landaketak kaltegarriak ote anfibioentzat? / Iñaki Sanz-Azkue
- 44 | Zinema (h)abian: Zinema ikasgeletara eramateko proiektu aitzindaria / Mikel Gurrea eta Lur Olaizola

ARGIA KOMUNIKAZIO PROIEKTUA ARGIA JENDEAREN BULTZADAREKIN ATERATZEN DUGU AURRERA. MILA ESKER DENOI.



EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN SAREKO KIDE


**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**
**KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA**

Gipuzkoako Foru Aldundia


Jabetza: Komunikazio Bizilagoa, S.A.L.
Ametzagaiña Taldeko partaidea.
Lehendakaria: Bego Zuza.
Zuzendaria: Estitxu Eizagirre.
Erredakzioa: Axier Lopez, Estitxu Eizagirre, Gorka Bereziartua, Jon Torner, Lander Arbelaitz, Maddi Txintxurreta, Mikel Asurmendi, Mikel Garcia, Miren Osa, Onintza Irueta, Pello Zubiria, Urko Apaolaza, Xabier Letona.
Diseinua: Sergio Labrador.
Argazkilaria: Dani Blanco.
Produktzioa eta inprimaketa: Antza S.A.L.
Administrazioa: Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarde, Marijo Aiertza.
Salmenta: Idoia Arregi, Ixabel Bereziartua, Karlos Olasolo, Maite Arrieta, Olatz Korta.
Idazkaritza: Aloña Sorraluze, Bego Zuza.

DOAN ETA LIBRE

ARGIAKO EDUKIAK KOPIATU, MOLDATU, ZABALDU ETA ARGITARA DITZAKEZU, GURE EGILETZA AITORTU ETA BALDINTZA BERETAN EGINEZ GERO.

Web garapena: Asier Iturralde.
Informatika: iametza interaktiboa, S.L.
Lege gordailua: SS 837-2012.
ISSN: 0213-909X.
Batzorde parekidea: 72562 E.
HELBIDEAK:
Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel.: 943 371545.
Lapuri, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel.: 559 473163.
Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina. 31001 Iruñea. Tel.: 948 222285.
POSTA ELEKTRONIKOAK:
Komertziala: komertzial@argia.eus
Harpidetzak: harpide@argia.eus
Erredakzioa: kazeta@argia.eus



PENSIO DIGNAK
0,25 = MAS POBREZA
"Guzandiak bizi la bizi pentsia
guzandiak bizi la bizi pentsia"
POR UNAS PENSIONES DIGNAS

pensiones dignas
0,25 = mas pobreza
pentsio dignak

PENSIO DIGNAK
0,25 = MAS POBREZA
POR UNAS PENSIONES DIGNAS

PENSIO DIGNAK
0,25 = MAS POBREZA
POR UNAS PENSIONES DIGNAS

PENSIO DIGNAK
0,25 = MAS POBREZA
"Guzandiak bizi la bizi pentsia
guzandiak bizi la bizi pentsia"

QUE NO TE ROBEN LAS PENSIONES LUCHA !!! SALVANDO LAS PENSIONES, SALVAMOS EL FUTURO

PENSIO DIGNAK
0,25 = MAS POBREZA
"Guzandiak bizi la bizi pentsia
guzandiak bizi la bizi pentsia"
POR UNAS PENSIONES DIGNAS

PENSIO DIGNAK
0,25 = MAS POBREZA
"Guzandiak bizi la bizi pentsia
guzandiak bizi la bizi pentsia"

PENSIO DIGNAK
0,25 = MAS POBREZA
POR UNAS PENSIONES DIGNAS

PENSIO DIGNAK
0,25 = MAS POBREZA

"Guzandiak bizi la bizi pentsia
guzandiak bizi la bizi pentsia"
PENSIO DIGNAK
0,25 = MAS POBREZA

pensiones dignas
0,25 = mas pobreza
pentsio dignak

“Gaur 15 urte betetzen dira ‘dena ETA da’ lelopean ‘Euskaldunon Egunkaria’ itxi zutela, administrazio kontseilukideak atxilotu eta torturatu zituztela. Eraso gintuzten baina oraindik zutik gaude”
@pellourizar

“Herria egiteko tresna zelako itxi zuten: tresna eraikitzailea, eraginkorra eta barne-hartzailea. Mehatxua ez da bukatu; aitzitik, indartzen ari da Espainiar Estatuan. Orduan bezala herri bezala jokatzeko garaia da”
@AnderGurusa

“Herriaren babesari esker altxa ginen eta altxako ginatete bihar ere. Kontua da zer egin beharko den Madrilen kolpeetatik gehiago altxa behar ez izateko”
@petxarroman

“Egunkariak Egia, Justizia eta Erreparazioa behar du”
@ForoSoziala



VILA WEB

Espainiako Erregea protesta artean hartu dute Bartzelonan

Maddi Txintxurreta
@mtxintxurreta

Bartzelonako Mobile World Congress (MWC) ekitaldiko aurkezpenean parte hartu zuen Espainiako Errege Felipe VI.ak igandean, eta bartzelonarrek protesta egiteko baliatu zuten bisita. Espainiako Erregeak Bartzelonako Palau de la Música-n hitzaldia eman behar zuela eta, Errepublikaren Aldeko Batzordeak (CDR) “zalaparta” egiteko deialdia egin zuten. Milaka manifestarik musikaren jauregia inguratu zuten kazolak eta txilibituak aldean.

Kataluniako Parlamentuko presidente Roger Torrent eta Ada Colau Bartzelonako alkatea ez ziren Espainiako Erregearen harrera ekitaldira agertu. Alabaina,

MWC-ek emandako afarian ikusi zuten elkar: Felipe Borboikoaren pare-parean zeuden Torrent eta Colau.

19 pertsona artatu zituzten

Errepublikako Riego ereserkia bozgorailuetan ozen entzuten zela ateratzen Felipe VI.a ekitalditik, eta manifestarien oihu errepublikar eta independentisten artean igaro zen. CDR-k deitutako protestak gauera arte luzatu ziren, eta liskarrak izan ziren segurtasun indarren eta manifestarien artean. Mossoek indarrez erantzun zuten une batzuetan, eta gutxienez 19 pertsona artatu behar izan zituzten. Mossoek pertsona bat atxilotu zuten.

ANCK kalera irteteko deia egin du martxoaren 11rako, “gobernu zilegiaren alde”.

“Ez gara makina batekin ari, jendeak dira!”

MAITE BARBERARENA, ERIZAINA

Menpekotasuna duten zaharren zaintzan ari diren profesionalak greba egin dute Frantziako Estatu osoan, lan baldintza egokiak eskatzeko. “Lehen ez zen Alzheimerrik aipatzen. Xaharrak arrunt galduak dira, beti eskuin eta ezker abian dira eta guk besteak utzi behar ditugu horien xerka joateko. Jende xaharrentzat ontsa da elkarrekin egotea, baina gure lan baldintzendako zailago da. Bestalde, gero eta zaharragoak dira, gehienek 90 urte dute. Beste publiko bat badugu ere, arazo psikiatrikoak dituen. Lehen, publikoa ez zen hain autonomia gabekoa. Orain gehienak jaiki behar dira, garbitu, beztitu, jatekoa eman, animazioetarat eraman... Ahal duguna egiten dugu, batzuentzat horien familia gara”. **LABORARI (2018-02-19)**



FAUNA PUBLIKOA

**"Gertatzen da, zoritxarrez,
nazionalismo katalana
independentismorantz
mutatu dela"**

**Pedro Sánchez,
PSOeko idazkari nagusia
(El Diario Vasco)**

Politika mutantea



Gorka Bereziartua Mitxelena
@boligorria

Normal zegoen ba, ez zitzaion ezer arraroa nabari. Pedro Sánchez etxetik atera zenean, bere maskotak betiko nazionalismo autonomista izaten segitzen zuen, platertxotik azken Royal Canin pentsu apurkak gogo biziz janez. Zepillatu berria zuen, estatutua txukun-txukun utzia zion Alfonso adiskidearen esku sendoek lagunduta. Polit zegoen, begi bat ixten zuen jolastu nahi bazuen.

Baina etxera bueltatzean egongela aurkitu du Tasmania-ko deabrua bertatik pasa izan balitz bezala: sofan zeuzkan kuxin polit horiek destripatuta, plasma-telebista lurrean pitzatuta –"joder, oraindik pagatzen ari nintzen", pentsatu du Pedrok-, kristal puskak nonahi, lokatza, atzapar arrastoak paretetan, sabaian. Kristo bat ikaragarria. Etxe osoa horrela ote dagoen begiratzera egin du. Baina gelditu egin da. "Eta nire gelan balego?". Soinua entzuten da han, pasilloaren bestaldean, norbait *-zerbait?-* dabil, eta Miquel Iceta izan daitekeen arren, ez da Queen-en musikarik entzuten, datorren hots hori ez da dantza apoteosiko batean murgilduta dagoen PSCko liderrarena. Ez, etxea puskatu dion piztia mutantea da. Bere maskotatxoa.

Korrika atera da eskaileretan behera; portaletik atera eta noraezean hasi da, zer gertatzen den esplikatu dion norbaiten bila. Baina jada ez du jenderik ikusten kalean, mutante gehiago baizik: Albert Riveraren aurpegia daukaten pizza banatzaile, eskolako ume eta udaltzainak, irribarre kirurgiko batekin kalean gora eta behera; eta beste etxe batzuk Espainia bezain puskatuta, maskota mutante gehiagoren obra inondik ere.

Pedro Sánchezek ez du ezer ulertzen. Eta hori, partidu politiko bateko buruzagia zarenean, problema handi samarra da. ■

**EZ
HANKA
EZ
BURU!**



EPAILEA |
IDIAZABAL-Elgoibar 0



ANALISIA



Futbola: hau ez da zirkoa, gerra baizik



Jon Torner Zabala

@jtorner

ARGAZKIA: LUIS JAUREGIALTZO / ARGAZKI PRESS

Maiz aipatu da futbola –gizonezkoen goi-mailakoa zehazki– zirko hutsa dela, diru-gosea oinarri, masa entretenitzea xede duen zirkoa. Bilbon bereziki baina baita beste zenbait futbol zelaitan ikusitakoak ikusita, ordea, esango nuke futbola deskribatzeko termino egokiena ez dela hori, baizik eta “gerra”, konfrontazio-esparru normalizatua.

Nola uler daiteke, bestela, adiskide batek Whatsappeko foroan idatzi duen moduan, zer pasa zitekeen jakinda, erakunde gomendioa izatea umeak inguruko eskoletara ez eramateko eta jendea etxeetan gera zedin eskatzea, alegia, gerra-egoera bere horretan onartzea?

Zeren eta noski, partida bertan behera uztea astakeria litzateke, ezta? Futbola maite duten zaleei traizioa egitea, kolore zuri-gorriek ordezkatzeko dutenari sakrilegioa... Gainera, horrelako ekitaldiek hainbesteko dirutza uzten dute hirian... Kapitala bizitzaren gainetik.

Bilboko osteko erreakzio gehienak bide beretik doaz: ultra biolento guztiak, diren klubetakoak direla, futbol-zelaietatik bota behar dira. Futbol taldeek

esku hartu behar dute, baita UEFA bezalako entee ere. Bale, eta? Futbol taldeak, futbol zelaiak eta futbol ekitaldiak diruz laguntzen dituzten instituzioek (“futbolak, ematen dioguna baino gehiago itzultzen baitio herriari”) zer edo zer pentsatu beharko dute, ala? Eta, gure ofizioari helduta, kazetariok futbolari hainbesteko garrantzia ematen jarraitu behar al dugu?

Galderak gehiago baititut erantzunak baino: zein gizontasun ereduren barruan dabilta Bilboko gisako istiluetan parte hartzen dutenak? Fiskaltzako norbaitek ofizioz aktuatu al du Falangearen kontra, Spartakeko naziei informazioa pasa dietela publiko egin dutela aintzat hartuta? Bide batez, he-dabide batzuek zergatik ez dute aipatu ultra errusiarrak naziak direla?

Portzierto, gizonezkoen goi-malako futbola eta ultrak aipatu ditugu, baina asteburu oro maila apalagoko zein meen partidetan biraoka eta batzuetan mutur-joka aritzen diren gurasoak ez dira Herri Norteko “lau deszerebratu”. Alegia, oinarrian ere badela zer konpondua.

EKONOMIAREN TALAIAN

Gasteiz 1976: ez ahaztu, ez etsi



Juan Mari Arregi

Espainiako Estatuako ordezkariak eta Arabako patronalak 1976ko martxoaren 3ko data ahaztu nahi dute. Espainiako gobernuetako bat izan zen bost langileren heriotzaren eta ehunka zaurituen erantzule. Arabako patronalak berriz, greba orokor historiko hura sorrazazi zuen. Gertaera haiengatik justizia eta ordaina eskatzeari utz diezaiegula nahi dute, baina Martxoak 3 eta Goldatu elkar-teak modu eredugarrian ari dira horretan. Langile klaseak, baita mugimendu hura guztia babestu zuten herri sektoreek ere, ezin dute ahan-tzi. Badator 42. urteurrena, eta kome-ni da konpromiso hori berritzea.

Ezin da ahaztu poliziak, Espainiako Gobernuaren agindupean –Manuel Fraga Iribarne eta Martín Villa buru– eta kapitalaren zerbitzura, su eta gar eragotzi nahi izan zuela mugimendu asanblearioa, sindikal-gintza bertikalaren kanonetatik at zegoelako. Ezin da ahaztu, ezta ere, greba eta mobilizazio ugari ekarri zituen mugimendu hura posible izan zela asanbladetatik eta ordezkaritza batzordeetatik sorturiko autoantolakuntzarengatik. Negoziatzaileak bilkura haietan aukeratzen ziren eta patronalak ezin zuen antolaketa hori etxekotu. Bizirik jarraitu behar du emakume eta herri sektoreen parte-hartzeak, greba haien zabalkunde, garapen eta iraupenerako giltza izan baitziren. Gaur egungo langile mugimenduentzat irakasgai garrantzitsua da hori.

42 urte igaro ondoren, Estatu krimen haren erantzukizun politiko eta sozialak ebatzi gabe daude, eta bik-timek oraindik ez dute ordain justu bat izan. Baina ezin dugu etsitasu-nean erori. Martxoak 3 eta Goldatu elkar-teak txalotu behar ditugu, zeregin neketsu eta zail horretan jarraitzen dutelako. Eta euskal administrazioari babes osoa exijitu behar zaio.



Zentsura

MADRIL. ARCOk, Madrilgo Arte Garaikideko Nazioarteko Azokak, erretiratu egin du Santiago Sierra artista-ren *Preso politikoak* obra, zeinean Oriol Junqueras, Jordi Cuixart eta Jordi Sanchez preso politiko gisa agertzen diren. Gero jakin dugu 80.000 euroan erosi dutela obra. Aste berean, Espainiako Estatuan Valtonyc abeslariari hiru urteko kartzela zigorra berretsi dio Auzitegi Gorenak, bere kantuen edukiagatik, eta epaile batek *Fariña* liburua bahitzeko agindu du, Galiziako O Grove herriko alkate ohiaren "ohorearen kontra" egiten duelakoan.

Altsasuko kasuaren berri emateko Nafarroari bira

Euskalerrira Irratia

@fm983irratia

Herriz herri joanen dira Altsasuko hainbat herritar, "terrorismoa" egotzi dieten gazteen auziaren berri emateko. Zortzi laguni guztira 375 urteko espetxe zigorra eskatu die fiskaltzak. Audentzia Nazionalean epaituko dituzte apirillean.

Babesa

Jende asko inplikatu da martxaren prestakuntzan: 17 babes-talde sortu dira eta 690 pertsona inguruk jardun dute antolakuntzan. "Altsasuko zortzi gazteak, beren familiak eta herria bera pairatzen ari diren justizia eza salatzea" da helburua.

Bira zabala

Ahalik eta herri gehien bisitatzen saiatuko dira: martxoaren 3an Lizarralde, Valdizarbe eta Tafallaldea; 10ean Leitzaldea, Baztan, Bortziriki eta Nafarroa Beherea; 17an, bizikleta martxa Iruñerriatik, Gazteluko plazan; 24an, Tuter eta Erribera.

Salaketa

Kasuaren "proportzionaltasun eza" salatuko dute beste behin. "Demokrazia batean bermatu beharko lirartekeen eskubideak eta printzipioak urratuak izan dira: errugabetasun printzipioa, defentsarako eta askatasunerako eskubideak...".

EKONOMIA SOZIALA



5

urte beteko ditu aurten Euskoak: Ipar Euskal Herrian erabiltzen den tokiko moneta da, solidarioa eta ekologikoa.

3.000 kidek erabiltzen dute Euskoa euren egunerokoan. Aurrerantzean, Euskoaren erabiltzaile profila zabaltzea izango da erronka.



SAKABANAKETA

Urtebeteko kartzela zigorra du Alfredo Remirezek (@erreharria), jaietan sakabanaketa politika salatzeako preso baten panpina ateratzeagatik eta sare sozialetan idazteagatik. Basauriko espetxetik Zaragozakoara dispersatu dute orain eta lehen bisitan senideek auto istripua izan dute.



HIGA!

HIGA! hizkuntza gutxituetako hiztun gazteen bigarren topaketa antolatu dute Gasteizen, uztailean. 70 hizkuntza ekintzaile harremanetan jarri nahi ditu egitasmoak.



KALERATZERIK EZ

Cesarea eta Bartolomek 68 eta 72 urte dituzte eta Gasteizen dute etxetik bota nahi zituen Kutxabankek, baina auzitegiak baliogabe jo du hipotekaren kuota bat ordaintzen ez duzunean bankuak hipoteka osoa eskatu ahal dizula dioen klausula, eta kaleratze agindua gelditu du.

Pekinek Mendebaldeari esan dio: "Ito zaitezke te zeuen plastiko zikinetan"



Pello Zubiria Kamino
@pellozubiria

Urtarrilaren 1ean Txinak bete du 24 motatako hondakinen inportazioa debekatzeko erabakia. Biharamunetik Europan eta Ipar Ameriketara gainezka daude teoriarik birziklagarriak diren hondakinen biltegiak eta ez agintariak eta ez enpresek ez dute asmatzen epe laburrean zer egin, batik bat plastiko hondarrek, mundu osoko zabor esportazioen erdia Txinak hartu baitu orain arte. Txinak ohartarazia zuen ez duela munduaren zabortegi izaten jarraitu nahi.

Sundance eta beste zenbait zinemalditan arrakasta edukiagatik, film batek nekez alda lezake mundua. Baina *China Plastics* dokumentalak lortu du -internezez ikusteko debekua urratuta bertako herritar askori begiak irekiz- Pekingo agintariei presa sartzea. Filmak gordin erakusten ditu mundu osotik teoriarik birziklatzeko inportatutako plastikoei zein larri kaltetzen dituzten Txinako jendeen osasunak eta bizitzeko behar dituzten lur, haize eta urak.

Hogei urte baino gehiagoz Txina izan da munduko hondakin birziklagarrientzako biltegi eta fabrika nagusia. 2016an planeta osoan esportatzen ziren plastiko, paper eta metalezko hondakinen %56 Txinara zihoazen. AEBek urte horretan 16.000 milioi tona bidali ziren, 5.200 milioi dolarren truke. Kanadako hiriek bere hondakin birziklagarri gehienak bidaltzen zizkieten.

Europatik berdintsu. Britainia Handiko birziklatze enpresen buruak kazetariari aitortu dienez, "20 urtez plastiko birziklagarriak Txinara esportatuz moldatu gara eta orain zer gertatuko den ez dakigu". Irlandak ohartarazi du bere hondakin pilak laster "krisi mailara" iritsiko direla; plastikoen %95 Txinara bidaltzen zituzten irlandarrek.

Pacific Standard egunkariak "Nola Txinako birziklatze merkatu globalak inarrosi ditzakeen" dienez, Txinari beren zakarrak bidaltzen dizkieten esportatzaile handienak dira AEB, Japonia eta Alemania. Ondoren datoz Britainia Handia

eta Malasia, eta horien atzetik datozen zazpi herrialdeen artean daude Espainia eta Frantzia. Pentsatzekoa da, beraz, Txinak uretara jaurtitako harrikadaren uhinak Euskal Herriraino iritsiko direla.

2008rako Txinak irrikaz bilatzen zuten lehengaiak bere manufaktura industria, etxegintza eta azpiegituretarako. Materialak urri eta lanerako jendea soberan, metalak bezala papera eta plastikoa atzeritik ekarritako hondakinak birziklatzea merkeagoa zaio oraindik ere lehengai gordinetatik ekoiztea baino.

Ordainetan, herrialde aberatsei merkeago ateratzen zaie beren hondakin birziklagarriak horien gosez dagoen Txinari saltzea etxean tratatzea baino. Adibide nabarmen bat motor elektrikoena da. Europako edo Ipar Ameriketako birziklatzaileei garestiegi zitzaizkien horien karkasak ireki eta barruko materialak eskuz bereiztea. Biltegietan pilatuz zihoazen alferrikako motorrok Txina hasi zen erosten 90eko hamarkadan.

Urteotan, eta gaur ere, Txinak aprobetxatzeko moduko zernahi erosi du mendebaldean. Hondakinen trafikoa ulertzeko, garraio merkeetan dago gako. Itsasontziak, Mendebaldeko portuetara mota guztietako produktuak eramandakoan, Txinara itzuli ohi dira hondakinez zamatuta. Plastikoei dagokienez, nagusiki portu handien inguruetan kokatuta dagoen manufaktura industria txinatarra bertan ekoizten ez den plastikoa erruz behar du, horregatik



erosten ditu prezio onean urrutitik ekarritakoak.

Joan den uztailean WTO Munduko Garraio Erakundearen biltzarrean garbi ohartarazi zuten Pekingo ordezkariak: "Guk lehengaitzat erabiltzeko dakartzagun hondakinek nahastuta dakartzate zabor zikin asko eta baita hondakin arriskutsuak ere. Eta Txinako ingurumena larri kutsatzen dute". Orain urtarrilaren 1ean 24 hondakin mota debekatuta oharra ulertzen hasi beharko dugu Mendebaldean, gogoz kontra bada ere.

Munduko fabrika eta zabortegi globala

Birziklagarrien inportazioetan ordena jartzeko ahaleginean 2013tik ari ziren agintari txinatarrek, *Hesi Berdea* operazioa abian jarri zutenetik. Motiboak badauzkate. Hasteko, urrutitik ekarritakoen birziklatzea ez da hasieran bezain negozio errentagarria, urteotan herrialdearen aberaste eta soldaten igoerarekin eskulana garestitu egin da.

Bestalde, lehengaitarako balio duten hondakinak ekartzeko aitzakiarekin nazioarteko zabor trafikoa zabor birziklaezin asko eraman ditu Txinara edozein bazterretan pilatu, lurperatu edo erre ditzaten. *China Plastics* enpresaren irudietan ikus daiteke Txinako hiri inguruak bezala landa eremuak soro eta erreka zenbateraino bilakatu diren urrutiko zaborren biltegi kutsakor, bertako biztanleen bizimoduak pozoituz. Filmak erakusten du eskuzko birziklatze



塑料从我们这里运达目的地后，人们在手工分拣
the material going to a location

'China Plastics' dokumentaletik ateratako irudian, protagonistetako bat den Ji-Jie neskatoak plastiko nahasien pila gainetik begiratzen die bere amari eta honi bularra hartzen dion ahizpa txikiari. 11 urterekin egunero ari dira lanean ama-alabak Txinako bazter guztietan perretxikuak legez ugaritu diren azpikontrata txikietako batean. Horietan zahar, heldu eta gazte, inolako babesik gabe egiten dute lan. Probesteko modukoa bereizirik, azken hondarrak soroetan bertan uzten dituzte erretzen, inguruko lur, haize eta urak kutsatuz.

lanetan osasuna galtzen duten helduen eta haurren bizimodu latza ere.

Eta zer egingo dute hondakinen esportatzaileek? Urte hasieran Europa eta AEBetako agintari askok ez zekiten nola erreakzionatu. Britainia Handiko Ingurumen ministro Michael Govek aitortu zuenez, "ez dakit zein ondorio ekarriko dituen, argi eta garbi aitortzen dizuet". Badirudi plastikoz gainezka daudenen adabaki bat izango dela Txinak baino are kontrol arinagoak dauzkaten herrialdeetara bidaltzea: Vietnam, Malaysia, Thailandia...

Ez dute aski izanen gero eta plastikoa gehiago kontsumitzen dutenek. Birziklatzeko azpiegituretan aspaldi oso gutxi inbertitu duten agintari eta industrialek erreakzionatu beharko dute. Eta saiatu beharko dute hemengo birziklatzeko sistemak Txinak ezarritako es-

tandar berrietara egokitzen: orain arte plastiko birziklagarrietan %1,5eko kutsadura onartzen bazuen, %0,5era es-tutu du muga, hori baino zikinagorik ez du onartuko. Gure artean birziklapena edozeri deitzen dioteneke garaiz ikasiko ote dute hondakinen gaikako bilketaren kalitate onaren garrantzia?

Litekeena da, ordea, Mendebaldeak are gehiago jotzea erraustera, #break-freefromplastic [Aska zaitetz plastikotatik] kanpainako arduradunek ohartarazi dutenez: "Hondakinen arazoari kutsadura arazo berria gehitzea litzateke, negutegi eragineko gasak eta minbi-ziak sortzen dituzten dioxinak isuriz".

GAIA Errausketaren Aurkako Nazioarteko Mugimenduak oroitarazi du birziklatzea ez dela aski, plastiko hondarren krisiarekin ikasi beharra daukagula: "Bizi dugun kutsadura krisitik

ateratzeko ez dago beste biderik plastiko gutxiago ekoizti eta kontsumitzea baizik". Baina industria ez dago horretan. Berrikitan jakin denez, azken urteotan 146.000 milioi euro inbertitu ditu industria petrokimikoak datorren hamarkadan plastiko produkzioa %40 handitzeko. Norbaitek nozituko du.

China Plastics dokumentalak baditu pasarte gogoangarriak. Batean, birziklatze lantegi bateko ugazaba eta beste herritar bat entzuten dira eztabaidan: "Zergatik datoz beste herrialdeak beren zaborrak Txinan lurperatzeraz?". "Ezin dutelako beren hondakina ondo sailkatu". "Mesedez... arma nuklearrak ekoiztu ditzakete eta ezin dute hondakina sailkatu? Bidaltzen diguten hau kaltegarria da, toxikoa ere izan daiteke. Nori ardura dio besteei eragindako kaltea etekinak ematen dituen bitartean?". ■



ZINKUNEGI OPTIKA

Hernani, 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com

50 urtez elkarrekin

Selva Almada, idazlea

«Alferkeria iruditzen zait testua atera bezala uztea, landu gabe»

Buenos Aires hiriburura aldatu eta orduantxe hasi zen Selva Almada probintziako giroaz idazten: "Konturatu nintzen literatura urbanoa zela nagusi, eta hura ez zitzaidan interesatu ez idazteko ez irakurtzeko". Harrezkero 20 urte joan dira, baina paisaia bertsuak jorratzen ditu Almadak gaur egun ere, "ertzak" aurkitzen baitizkie oraindik.



Danele Sarriugarte Mochales

@daneleSM

ARGAZKIAK: DANI BLANCO

Noiz hasi zinen idazten?

Handitan. Batzuek txikitatik dakite idazle izan nahi dutela, baina nik ez; nik, haurra nintzela, kazetari izan nahi nuen. Are, paradoxa badirudi ere, kazetaritza ikasten ari nintzela hasi nintzen fikzioa idazten. Idazketa-tailer batera joan nintzen, eskua apur bat askatzeko, eta askotariko ariketak egiten genituen han, sormen-ariketak batez ere. Hortxe lotu nintzen. Narrazio batzuk idatzi nituen, eta ikasten nuen hiriko [Paraná] gehigarri batean argitaratu zituztenean jabetu nintzen akaso kazetaritza ez zela nire bidea.

Eta literatura ikasten hasi zinen.

Bai, sinetsita bainengoen zenbait gauza irakurri beharra zegoela idazle izateko, nahiz eta ideia hori faltsu samarra izan. Baina tira, esperientzia itzela izan zen, idazten hasi berria zen jendea ezagutu nuelako, eta irakasle batzuek asko xaxatu gintuztelako. Haiei esker idazle

gazteak ezagutu genituen, eta ondo etorri zitzaidan zeren, ordura arte, niretzat idazleak hildakoak ziren (Borges, Cortazar), eta bizi ziren apurak Buenos Airesen bizi ziren, ez zegoen beste aukerarik. Baina Paranáko irakasleei esker barnealdeko idazleak ezagutu nituen, barnealdeko argitaletxeetan publikatzen zutenak... Burua zabaldu zidan horrek: konturatu nintzen idazketa aberatsa zegoela probintzian, denak ez zuela hiriburuko bidea igaro behar eta ni bizi nintzen tokian bazela ekoizpenik.

Hain justu ere, zuri buruzko artikuluetan eta zure liburuen kontra-azaletan sarri aipatzen da probintziaren kontua. Beatriz Sarlo kultur kritikariak esan zuen zure literatura "probintziakoa dela, eskualdekoa, ez ordea kostunbrista". Zer jarrera duzu halako kontzeptuen aurrean?

Entre Ríos probintzian idazten ari zen literatura berriagoa topatu nuenean, gauza interesgarri askoak ikusi nituen,

baina, ordura arte ezagutzen nuen eta probintzian egiten zen literatura kostunbrista samarra zen, folkloriko samarra, eta ez nintzen asko identifikatzen horrekin. Unibertsitatean idatzi nituen lehen narrazioak, beraz, ez zeuden oso loturik probintziarekin, halako ez-le-

Selva Almada

Villa Elisa, Entre Ríos, Argentina, 1973

Idazlea da Selva Almada. Poemak, narrazioak, eleberririk eta kronikak argitaratu ditu. *El viento que arrasa* (2012) eta *Ladrilleros* (2013) eleberriei esker sona eskuratu zuen nazioartean, eta hainbat hizkuntzara itzuli zituzten haren lanak. Buenos Airesen bizi da, idazketa tailerrak ematen ditu eta Carne Argentina izeneko literatura zikloa antolatzen du.



ku batean gertatzen ziren. Gero Buenos Airesera joan nintzen, eta haurtzaroari buruzko narrazio batzuk idatzi nitue- nez, nahitaez itzuli nintzen umetako paisaia haietara, eta hasi nintzen ertz asko aurkitzen. Edonola ere, idazten ari nintzela, ez neukan kostunbrista ez iza- teko helbururik. Jakina, Buenos Airese- ko telebistan probintzianoen inguruan agertu ohi diren estereotipoekin ez nin- tzen inondik ere identifikatzen, beraz argi zegoen ez nuela hortik joko.

Haurtzaroko paisaietan kokatzen dituzu zure pertsonaiak eta historiak, nahiz eta gazterik egin alde handik. Elena Ferrante idazlearen hitzekin akordatu naiz, bera ere aspaldi joan baitzen Napolitik, bai- na...

Aspaldi joan zen baina ezin izan du guz- tiz alde egin?

Bai, gutxi gorabehera. Halako zerbait sentitzen al duzu zuk ere?

Sarri samar itzultzen naizen arren, egia da 20 urte egin ditudala Buenos Airesen bizitzen eta egunerokoa han egiten du- dala, beraz, bai, Ferranterekin konpar- titzen dut beste sentipen hori, iruditzen zait ezin izan dudala guztiz alde egin, eta gainera, halaxe izango da inguru horri buruz idazten jarraitu bitartean.

Bestalde, bizitzako lehen hamarkada hori funtsezkoa da, eta ni probintzian hazi nintzenez, nirekin egongo da beti- rako, onerako edo txarrerako, nahiz eta urteak joan ahala tokia aldatu, noski. Baina badago hor zera bat, familiare- kin gertatzen denaren antzekoa: ha- serretzen zara, kexatzen zara, baina zerbaitek lotu egiten zaitu, harremana hautsita ere arrastoren bat geratzen zaizu beti presente. Alderdi emoziona- lagoaz gainera, inguru horiek oso era- kargarriak iruditzen zaizkit oraindik, pertsonaiak eta historiak aurkitzen di- tut oraindik, eta arakatzen jarraitzeko gogoia daukat.

Ez da agortu...

Oraindik ez. Hizkeran ere ikusten da hori. Askok interesatzen zait toki horie- tako hizkerak lantzea, ez soziologia egin nahi dudalako eta toki horietan bizi den jendeak nola hitz egiten duen berresku- ratu nahi dudalako, modu poetiko ba- tean baizik: hango hizkeren lehengai- ja eta buelta poetiko bat eman. Eta in- guru horretan beti topatzen ditut doinu,



esaera eta hitz berriak, han erabiltzen direnak baina hirietan ez.

Zure lehenengo eleberriko protagonis- tak, Pearson artzain ebanjeliko sutsuak, eliztarrei esaten die kontuz ibil daitezela hitz ederrekin eta hitz sendoekin. Idazlea zara, zer uste duzu zuk hitz ederrez eta hitz sendoez?

Egia esan, biak gustatzen zaizkit, hitz ederrak eta hitz sendoak, baina ez zait interesatzen soilik hitz ederrak edo soilik hitz sendoak erabiltzen dituen literatura. Askok gozatzen dut hizkun- tza lantzen, bueltak ematen, eta nire testuetan itxuraz oso esaldi sinpleak agertu arren, seguru asko luze aritu naiz esaldi horrekin lanean, eta azke- nean erabaki dut hori dela adierazpi- derik egokiena. Oso gustuko dut hitz arrunt-arruntak hartzea eta, adibidez,

literarioagotzat jo ohi diren beste esaldi kiribilduago batzuekin nahastea. Beraz, hitz ederrak eta hitz sendoak, biak gus- tatzen zaizkit, kontua da nola uztartu, nola dosifikatu...

Nola orekatu?

Bai, edo nola landu. Esaldi polit-polit bat desmuntatzea lana da. Konturatzea baietz, agian esaldi itzela dela, baina, testuinguruan ipinita, ez diola mesede- rik egiten testuari. Orduan jakin behar da askatzen (edo beste baterako gorde- tzen). Idazleak, azken batean, zer egiten du? Ba, sinplera etorrita, idazleak hiz- kuntza lantzen du, hitza lantzen du, eta begien bistakoa iruditu arren, askok ez dute hori egiten, gaur egungo literatu- ran horixe falta baita, lana. Alferkeria iruditzen zait testua atera bezala uztea, idazle askok egiten duten moduan.



Laguntzaile ezohikoa

Chicas muertas liburua idazten ari zela, tarotista batengana jo zuen Almadak. Aurrez gauza bera egin zuen kazetari txiletar bati hartu zion ideia. “Tarotista hura ez zen edozein, asko irakurritako emakumea zen, oso azkarra eta kontzientzia handikoa. Hizketaldi luzeak egin genituen, oso lagungarriak suertatu zitzaizkidan liburuko hariak antolatzeke. Tarotistari esker konturatu nintzen hiru hilketen artean bazirela zenbait lotura deigarri”.

Ez-fikziozko liburu bat argitaratu duzu: *Chicas muertas*. 80ko hamarkadan Argentinako probintzian hil zituzten hiru nesken kasuak berreskuratu dituzu. Zer kezka zegoen liburuaren sorburuan?

Nerabe nintzen garaian halako bi kasu gertatu ziren, Andrea eta María Soledad hil zituzten, lehena nire ondoko herrian eta bigarrena beste probintzia batean, baina asko zabaldu zen, zenbait gobernadoreen semeak zebiltzalako tartean. Oso presente neuzkan biak, nolabait ere orduan konturatu nintzelako, emakume izanez gero, bazeudela arrisku erantsi batzuk, emakume izanez gero bazeudela beste kezka batzuk, gizonari eragiten ez zietenak. Gainera, Andrea etxean hil zuten, bere ohean, eta horrek erakusten zuen ez zegoela toki segururik emakumeontzat, zeren halakoetan sarri esaten zen, adibidez, dantzaldi batera joan zela

neska eta horregatik gertatu zitzaioela, baina kasu honetan garbi zegoen ezetz.

Zergatik aukeratu zenituen kasu horiek eta zer asmorekin ekarri nahi zenituen berriro plazara, hainbeste urteren ostean?

Orain dela hamar urte inguru hasi nintzen liburua egiteko ideia mamitzen. Sasoiari gero eta gehiago hitz egiten zen feminizidioez, nahiz eta oraindik ez zen hitz hori erabiltzen. Eta telebistan eta jende artean askok aipatzen zuten lehen ez zela halakorik gertatzen, halako moda bat zela, zera, emakumeak akabatzea boladan balego bezala. Baina ni Andrearekin eta María Soledadekin akordatu nintzen aldiro, eta nire kautan esaten nuen, haiei gertatu bazitzaie, seguru lehen ere gertatuko zela, baina ez zitzaioela inori axola, naturalizaturik zegoela. Kontua da orain ikusi egiten dela eta eragina daukala. Beraz, ikuspegi historiko horretatik ekin nion Andrea eta María Soledad hil zituzten garaitsuko kasuak bilatzeari, erakutsi nahi bainuen 80ko hamarkadan ere gertatzen zirela halakoak, gizonak ez direla orain halako batean milurteko berriarekin kalera atera eta emakumeak akabatzen hasi.

Familiak nola hartu zuten proiektua?

Haiengana egin nuenean, esker oneko agertu ziren, aspaldi ahaztutako kasu horiek aztertzeke interesa neukalako. Akaso batzuek espero izango zuten liburuari esker kasuak berriro irekiko zirela, eta noski, ez zen halakorik gertatu, baina gutxien-gutxienik beren historiak gorde izanak nolabaiteko kontsolamendua eman zien. Prozesu luzea izan zen, baina, zorionez liburua argitaletxe garrantzitsu batean atera zen, eta zabaldu da.

Ángeles Rawsonen kasuari buruz ere idatziz zenuen 2013an, hura hil eta zenbait hilabetera.

Bai, *Anfibia* aldizkariko zuzendari Cristián Alarcónek bazekien liburuarekin nenbilena, eta Ángeles Rawsonen kasuaz idazteke gonbita egin zidan, beste kazetari batekin batera. Oso kasu mediatikoa zen; badakizu nola egoten diren biktima onak eta biktima txarrak, ba hau biktima perfektua zen. Morboa elikatzeke irizpide guztiak betetzen zituen (oso neska gaztea, familia “onekoa”) eta

halakoxe tratamendu morboso eta izugarria eman zioten gaiari.

Hain justu ere, zure artikulua sarreran azpimarratzen da beste begirada bat eskaini zeniola gertaerari. Zer-nolako begirada zen hori?

Saiatu nintzen ikuspegi apur bat humanoagoa lantzen, tentuz ibiltzen, eta bazter uzten beste zurrumurru horiek guztiak. Telebistan etengabe erakusten zituzten kaleko segurtasun-kameren grabaketak, eta hantxe ikusten genuen Ángeles beti etxera bidean. Asko eragin zidaten irudi horiek, izan ere, pantailan ikusten genuen eta bagenekien handik 10 minutura hil egingo zutela. Teknologiaren kontuak halako estualdi bat sortzen zidan: bideoa ikusten ari gara eta atzera egiterik bagenu, Ángeles norbaitekin topatuko balitz eta ez balu aurrera jarraituko... Baina ez zen sekula inorekin topatzen, noski.

Segurtasun-kamerak egonda ere azkeanean hil egin zuten.

Horixe da, berandutxo zetorren bideoa. Bideoak balio izan zuen krimena argi-

tzeko, ez ordea krimena eragozteko. Horrek asko inpaktatu ninduen, eta horri tiraka idatzi nuen artikulua.

Zure azken liburua aurkezten zabilta orain, Lucrecia Martelen *Zama* filmaren grabaketari buruzko ohar-bilduma. Martel orain gutxi izan zen hemen, eta esan zuen errealitateaz susmatzea dela bere lanen konstante bat, errealitatea aztertu nahi badugu zaltzan jarri behar dugula. Zuk nola lantzen duzu errealitatea zure lanetan?

Bat nator Martelekin, bikaina iruditzen zait errealitatea zalantzan jarri behar hori. Nire literatura errealista da, esan nahi dut, ez da Martel gertatzen eta ez du inork untxirik botatzen ahotik, baina errealismoaren kontu hori apur bat deserosoa egiten zait, errealitatea eta literatura eraikuntzak baitira biak, beraz, nire liburuetako errealismoa subjektiboa da, ikusten eta pentsatzen dudaren araberakoa.

Gogoan dut behin iruzkingile batek haxe esan zuela nire liburuez: "Selva Almadaren liburuak irakurtzen dituenak ez da inoiz joango Entre Ríos provin-

tziara, hain gauza izugarriak kontatzen baititu inguru horri buruz". Hara, begirada inuzente samarra da hori, pentsatzea nobela batek erakusten duela nolako den probintzia bat benetan. Esan bezala, errealitatea eraikuntza bat da, eta horri buruz idaztean ez dut ikuspegi atsegin bat eskaini nahi, kritikoa baizik.

Idazleak ezinbestekoa du begirada kritikoa?

Bai, izatekotan horixe da artiston zeregina: gauzei buruzko ikuspegi kritikoa ematea. Adibidez, orain gobernu negargarria daukagu Argentinan, eta artista eta kulturgile asko ari dira kritikatzten; ni, ordea, aurreko gobernuarekin ere izan nintzen kritiko, eta uste dut hori deserosoagoa zela, zenbait gauzatan gertuago bainengoen harengandik, batez ere kultuaren arloan. Artistok kritiko izan behar dugu gure herrialdeko errealitatearekin, erakundeetako bosterearekin, gobernuarekin, izanak izan eta gobernu horrekin gauza askotan bat etorrita ere. Uste dut horixe dela modua... Artea deserosotasunean sortzen da, ez erosotasunean. ■

Europa erakusten digutena baino askoz ere anitzagoa eta ederragoa da

EUROPAKO HERRIEN MAPA EUSKARAZ

15€

bidalketa barne
Euskal Herrian

Mundua ulertzeko
beste begirada bat,
ARGIAren eskutik.

ARGIA

Egin ezazu eskaera:

943 371 545 | www.argia.eus/denda | denda@argia.eus



Neurria: 84,1 x 59,4 cm

Etxe, eskola eta elkarteetarako opari aproposa

Lur eta Ekai

Artikuluaren lerro-burua hau-
xe: *Euskaltzaindiak zakila arazo
linguistikoa bilakatu zueneko.*
Axier Lopez kazetariak ARGIAN publi-
katutakoa. Horrela hasten zen: "Orain
bi hilabete jaio zen Lur. Artean izen
ofizialik ez bazuen ere, Lur izan da
burua mundu honetara atera aurretik
eta ondoren. Haurdunaldian ez genuen
bere hanka-tartearen berri eduki nahi
izan. Genitalen forma bigarren maila-
ko kontua iruditzeaz gain, gure burua
eta ingurua ez genituen aurrez baldin-
tzatu nahi genero jakin bati dagokion
klixeeekin". Alegia, zakilarekin jaiotako
haurrari erregistro zibilean Lur jartze-
ko bizitako *via crucisa* kontatu zuen.

Espainiako Erregistro Zibilaren
legeari men eginez, Euskaltzaindiak
2001etik aurrera sexuaren arabera-
ko bereizketa finkatu du izenetan, eta
izendegi hori kontsultatu egiten dute
herrietako erregistro zibileko langileek
gurasoek erabakitako izena arraroa iru-
ditzen bazaie. Izendegian Iraitz mutil
izena dela jartzen badu, gurasoei kos-
tatuko zaie izen hori aluarekin jaiotako
haurrari jartzea.

Euskaltzaindiak eztabaida politikoe-
tan parte hartzen ez duela, legea bete
baino egiten ez duela, arazo handia ez
dela eta jende oso gutxi kexatu dela
erantzun du orain arte. Badirudi egun
kexatu den jendea ez dela hain gutxi,
pasa den urtarrilean Euskaltzaindiak
Justizia Ministerioari euskal izendegia-
rekin malguago joko dezala eskatuko
dio eta, euskararen ezaugarri propioak
kontuan izan ditzan.

Ekaireren heriotzaren berri izan ge-
nuen duela bi aste. 16 urterekin bere
buruaz beste egin zuen Ondarroako
mutil transexuala. Chrysallis Elkartea-
ren esanetan, nerabe batentzat gehie-
gizko batailak borrokatu behar izan
zituen Ekaik egunerokoan: Erregistroan
izen-aldaketa lortzeko borroka, Guru-



June Fernández

KAZETARIA

@marikazetari

Ekaireren heriotzaren
berri izan genuen duela
bi aste. 16 urterekin
bere buruaz beste egin
zuen Ondarroako mutil
transexuala. Chrysallis
Elkartearen esanetan,
nerabe batentzat
gehiegizko batailak
borrokatu behar izan
zituen Ekaik egunerokoan:
Erregistroan izen-aldaketa
lortzeko borroka...

tzetako "genero unitatean" inoiz heldu
ez zen behar zuen hormona-tratamen-
dua jasotzeko borroka, institutuan

bere errealitatea ulertu eta ondorioz
errespetatzeko egin ez zen formakun-
tza-saioa ematea lortzeko borroka...

Aurreko astean hain zuzen ere,
Chrysallis Elkarreak Legebiltzarrean
transexualen legea egokitzea eskatu
zuen, patologizatzearekin bukatzeko.
Hormonak lortzeko prozesua motela
da, besteak beste nerabeek zein hel-
duek genero disforia diagnosis jaso
behar dutelako lehenago. Hezkuntza
sisteman transexualitateari arreta ego-
kia emateko protokoloak garatzea ere
eskatu dute. Ekaireren bizitza goibeldu
zuten borroketariko bi. Hirugarrena,
izena aldatzeko trabak.

Hori dela eta, izendegiaren kontuaz
akordatu naiz. Kontua ez da soilik
euskararen ezaugarri propioak ditue-
la onartzea (Lur edo Hodei bezalako
izenen tradizio mistoa), baizik eta
Espainiako Erregistro Zibilaren legea
bera transfobikoa dela ulertzea. Legeak
debekatzen dituen izenen artean, "*los
que hagan confusa la identificación y los
que induzcan en su conjunto a error en
cuanto al sexo*" aipatzen ditu. Gizar-
te binarista honek pertsonen sexua
identifikatzeko zailtasuna mehatxu
bezala ikusten du. Sexu ambiguitasunak
arriskutsua dirudi, bake sozialerako
atentatu bat.

"Dualismoaren tirania birpentsatu
beharko genuke. Nik aniztasunaren
pedagogiaz hitz egin izan dut", esan du
Dau García Dauder ikerlariak ARGIAN
publikatutako elkarrizketa eder ba-
tetan. Ekaireren omenez antolatutako
elkarretaratzeen leloa; "Ez da suizidioa
izan, eraiketa baizik" izan da, trans-
fobia izan baita Ekairi bizitzeko grina
kendu diona.

Axier Lopezen azalpenak dualismoa-
ren tirania auzian jartzeko nahia adie-
razten zuen, baina transfobia instituzio-
nalaren horma gogorrarekin topo egin
zuen. Ekai erail zuen horma bera. ■

Irakasleek C1 Kazetariak C2

Espainiako Gobernuak EAerako 340 lanpostu publiko aterako ei ditu lehiaketara. Euskararik ez da inorako eskatuko. Horrek, jakina, urratu egiten ditu 10/1982 Legearen 5. eta 6. artikulua, baita Auzitegi Konstituzionalaren 82/1986 epaia ere. Baina zer axola? Javier de Andres elebakarrak bere elebakartasunetik elebakartuko gaitu... eta Idoia Mendiak ez du oraingoan protestarik egingo.

Baina izan gaitezen justuak: Hezkuntzan ere hainbat lanpostu aterako ditu Eusko Jaurlaritzak: guztietarako euskarazko C1 izatea beharrezkoa izango da, eta horretan ere ez du protestarik egingo Mendiak. Ez gaude-eta hauteskunde-kanpainan.

Niri, oster, bitxia egiten zait euskal eskola publikoko irakasle izateko euskarazko C1 titulua eskatzea, batez ere kontuan izanda irrati publikoko kazetari izateko C2 maila eskatzen duela EITBk, Jaurlaritzaren erakunde autonomoa bera. Kasu! Azken horretarako ez du balio titulua izateak: propio egin behar da euskara azterketa bat, eta unean bertan egiaztatu ezagutza hori. Duela 34 urteko EGA agiriak irakaskuntzarako balio dit, duela hiru urteko C2k ez lidake kazetaritzarako balioa.



Mikel Basabe

IRAKASLEA

Enpresa publikoko kazetari izateko euskarazko C2 mailako ezagutza egiaztatu behar da, eskola publikoko irakasle izateko C1. Nire irudiko, ez hanka, ez buru

Argi esanda: enpresa publikoko kazetari izateko euskarazko C2 mailako ezagutza egiaztatu behar da, eskola publikoko irakasle izateko C1. Nire irudiko, ez hanka, ez buru.

Bigarren mutur bati ere tiratu ahal izango genioke. Halako batean, betiere ekaina baino lehenago, hezkuntzako oposizioetako dekretua argitaratuko du

sailak. Orduan ikusiko dugu euskarazko C2 maila izateak ez duela punturik emango, nahiz eta juridikoki egingarria den (hala egiten da EAeko administrazio orokorreko oposizioetan) eta Steilasek betidanik eskatu izan duen. Kasu berriro ere! Euskarazko C2k ez du punturik emango, baina ingelesekoak, frantsesekoak, alemanekoak, portugesekoak... horiek bai, horiek emango dute.

Kazetari izateko betekizun dena, irakasle izateko meritu ere ez da izango.

Bitxia, ezta? Batez ere 3L ereduarekin tematu zaizkigunean. Eredu hori tranpa dela zioen Mikel Garcia Idiakezek otsailko ARGIA batean, eta hala dela uste dut neuk ere: tranpa.

Pixka bat *mucho* dela sinetsita, euskarari D eredu zaharrean baino eskola-ordu gutxiago emango dizkiote 3L eredu berriarekin, baina, kasu berriro ere! Euskara ordu gutxiago hartu arren, ikasleek euskara gehiago ikasiko dute! *Mirari* eredu! Orain arte, DBH D ereduak bukatzen duten ikasleei B1 maila onartzen die Jaurlaritzak. Etorkizuneko irakasleek, oster, B2 lortuko ei dute DBH amaitzean. Eta, hurrenkera logikoz, irakasleen C1 Batxilergoa amaitzen duenean, ezta?

Bada ez: ez da. ■

informazio osoa
www.bertsozale.eus



BIGARREN FASEA

Unibertsolariak - (Larraun da Araitz) Bi dozena
Ibardin: Hiru ta lau dira zazpi - Aldatzea komeni
Addams familia - Topa bardo kopa!

FINALA

Martxoaren 24an, Lekunberriko
Toki Alai sagardotegian

Eskola eta herria



Kimetz Arana
BARATZEZAINA

Goizeko 7ak, etxeko arropa zaharren hautaketa egin, mozorroa jantzi eta gurutzatu dugu herria kalerik kale. Etxera bueltan datorren gau-paseroa, tabernari goiztiarra, egunkari banatzailea, begiradak gurutzatuz elkarren ondoko mundu paraleloak agurtu ditugu instantean. Euria ari du baina gogotsu nator, eskerrak halako egunak badiren gurean, bestela galdurik geundeke orden ofizialak ezartzen digun isolamenduan.

Irla bat gara itsasoan, aniztasuna eta tendentzia globalak nagusi diren XXI. mendeko jendarte urbanoan. Azken datuen arabera 100 hizkuntzatik gora mintzatzen dira Euskal Herrian, bere erreferentzia kultural, balore eta sonoritateekin. Honi gaineratuz bateko zein besteko tribuak, elkarren ondoan elkarren berri izan gabeko mikro mundutan bizi gara. Guztion gainetik berriz kultura komertzial ofiziala da nagusi Bizkaiko Ezker Ibarrean.

Badira zazpi urte jatorrizko inauteria berreskuratu genuela gure herrian. Etxez etxeko eske zaharra industriguneko auzotara bilakatu genuen, musika, dantza eta kantuz alaiturik, Carrascolindas izena du Trapagaranen.

Oso egun maitatua da parte-hartzaileentzat. Agian, bizi garen sistemak dituen gabezia komunitarioei erantzuten dielako sorrarazten ditu hainbat emozio gure baitan. Pertsonak berezkoa dugu era espontaneoan elkartu, kalean kantatu,

besarkatu, ukitu eta nahas-mahas dantzatzeko beharra. Gaurko ordena sozialaren itxitasunean, horretarako bide ematen digu Carrascolindasek eta hor du bere garrantzia.

Ekimenak badu arrakasta herrian baina herriko inauteri bihurtzeko zailtasunak ditu. Urtero 200 auzotarretatik gora elkartzen gara. Seguru nago ordea probatuz gero beste hainbestek gustuko luketela eguna. Tamalez ez gara gehiago zabaltzeko gai. Zeintzuk dira honen arrazoiak?

Desegituratua da gure eskualdeko gizartea. Arazo ekonomikoak, familiarrak, bazterkeria edo drogen ondorioak bestetan baino hedatuago dira Meatzaldean. Horrela superbibentzian gehiago, norbera isolatuago, zaila da herrian proiektu komunak zabaltzea. Gainera ekimen herrikoieki-ko eskualdeko komunikabideen isiltasunak eta instituzioen babes faltak areagotu egiten dute ezintasuna.

Horregatik derrigor epe luzera doa gure begirada, pentsatuz modu ludikoz eskoletan garatu litezkeen hezkuntza proiektuen bidez egin daitezkeela aurrera. Dantza eta musikaren bidez herria eta eskola lotuz, herriarekiko maitasuna sortuz, zahar eta gazteen arteko harremanak eginez eta gurean hain azaleko diren baloreak landuz. Euskal Herriko metropolian biziko bagara auzoko tribuekin elkarlanean aritu behar dugun kontziente, etorkizuna gazteekin ere behar dugun jabetun, bihar hemen ere herri izan gaitezen. ■

Karrikan



Itxaro Borda
IDAZLEA

Duela gutxi, arratsalde euritsu batez, Baionako merkatu estaliaren saihetsetik pasatzean susmatu nuena iltzatua daukat memorian. Gurutzatuak nituen alabaina erlijio ezberdinetako predikatzailak Lapurdiko hiriburuko gaueetan edo arraberritzen ari diren Santizpiritu zubiaren puntetan. Guztiek, hiltzea zilegi, paradisua hitz ematen digute beraien fede-bide latz eta gogorren irakaspenak egiaztatzen baldin baditugu.

Bi gizon baziren, bizardunak, trapu zaharrez jantziak, palestinarren *keffie* antzeko oihal puska gorrixka baten gainean belauniko eta konkortuak merkatu estaliaren burdinazko zutabe baten

malidan. Marmara isilez zutitzen zihoazen, esku ahurrak zerura, bertatik iragaten ziren jendeez axolarik gabe. Arratsaldeko bostak eta Mekara zituzten buruak. Nik Meka beste aldera jarriko nuen arren, banekien ez zirela *hatha yoga* mugimenduetan akitzen.

Begiesten nuenak tristuraz eta uherduraz bete ninduen. Otoitza karrikan egiten zuten, alta Baionan ez da ostatu, *ashram*, tenplu, sinagoga, eliza eta meskita eskasik. Funtsean, muturreko kristauek ere gauza bera egiten dute abortuaren kontrako ekintzetan. Ematen du, dagoeneko, fedeak espektakulua izan behar duela eta espazio publikoa inpubdikoki pribatizatua dela! ■

BIDE LUZE BATEN ABIAPUNTUA

Emakumeentzako greba da Euskal Herriko mugimendu feministak antolatutakoa. Ezker-eskuin begira aritu dira, eredu bila: Islandia (1975), Herrialde Katalanak (2015), Polonia (2016), iaz berriz, 70 herrialdetan gutxi-gehiago zabaldu zen greba... Ez da lanpostua babesteko lanuztea, ez da lan baldintza duinak aldarrikatzeko eguna. Emakumeek bizitza duina eskatuko dute eta hori lortzeko lantokian, zaintza lanetan, ikasketetan, aisialdian, kalean, dituzten fronteak lehen lerrora ekarriko dituzte.



**Ilazki Gainza Giraldo
(Kalaka)**

ARGAZKIAK: ARITZ LOIOLA

MS Greba!
feminista!



“Martxoaren 8a beti izan da langile mugimenduari lotutako eguna eta horretan sakondu nahi dugu: emakume eta langile izatea gurutzatzen diren zapalkuntza horretan. Greba feminista, greba da; baina kasu honetan greba produktibotik erreproduktibora heltzen den greba izango da”. Naia Torrealdei Mandalunizen hitzak dira, Bilboko Bilgune Feministako kide eta M8ko grebaren antolatzaileetakoaren hitzak. Emakumeak geldituz gero zer gertatuko litzateke? Zaintza lanak baloratzen al dira jendartearen? Kontziente al gara horien beharraz lanera edo eskolara garbi jantzita, ondo elikatuta eta osasuntsu goazenean? Nork egiten ditu halako lanak? Gehienetan emakumeek, batzuek ordainpean eta beste askok (gehienek) doan.

Mugimendu feministak emakume guztiei deia luzatu die martxoaren 8an egingo diren lanuzte eta ekintzetara bertaratzeko; aldi berean, ezin dutenei baina grebaren beharra azpimarratzen eta babesten dutenei amantalak leihotik zintzilikatzeko eskatu diete. Antolatzaileak jabetzen dira zaintza lanean eta beste hainbat lan prekariotan dabilen emakume askori ezinezkoa izango zaiola grebara fisikoki batzea. Ondorioz, ikusgarritasuna eta babesa emateko modu desberdinen bila aritu dira, emakume bakoitzaren egoera desberdina dela kontuan izanda. Aurtengo greba feminista prozesu luze baten hasiera dela diote, oraindik borroka-urte asko geratzen dira zoritxarrez, eta lehen urratsa zaintza lanei eta horietan lanean dabilen emakumeei ikusgarritasuna eta balioa ematea da.

Zaintza lanen feminizazioaz eta beste kontuez aritu gara Silvia Cony Haydee

“EMAKUMEOK* PLANTO” MANIFESTUA

Emakumeok planto* lelopean grebarako deialdia zabaldu du Euskal Herriko mugimendu feministak lan, ikasketa, zaintza eta kontsumo esparruetan. Manifestuan hala diote: “Iaz, 70 herrialde baino gehiagotan, emakumeek* nazioarteko emakumeen* grebarako deialdia zabaldu zuten, emakumeen* kontra indarkeria eta desberdintasun molde ugari eragiten dituen munduaren aurrean. Aurtengo martxoaren 8an Euskal Herriko mugimendu feministak bat egin nahi du *Emakumeok* planto* aldarriarekin, menpean hartzen eta zapaltzen gaituen sistema kapitalista, arrazista eta heteropatriarkala salatzen. Honako eguna bide luze baten abiapuntua izango da. Bide horretan, aliantza berriak ehunduko ditugu, bateratuz eta elkar ezagutuz, gure borrokak berriz pentsatuz, erresistentzia berriak erakiz, eta baztertzen gaituen mundutik askatuz, betiere alternatiba feminista bat sortzeko helburuarekin”.

Antolatzaileek emakume hitzari asteriskoa jarri diote eta hona haiek emandako azalpena: “*Emakume* izendapena erabiliko dugu, martxoaren 8ko greba feministan artikulazio politikorako baliagarria delakoan, nahiz eta genero sistema bitarraz gaindi askotariko gorputz, ibilbide, bizipen, ahalmen eta identitateak bagaren (bollerak, transak...)”.

Rivasekin, Munduko Emakumeak elkarteko kidearekin. Harro dago greba feministan zaintza lanen prekarizazioa ozen eta sendo salatuko delako. Zaintza grebak egitearen garrantzia azpimarratu du egoera salatu eta ikusarazteko baliabide eraginkorra delakoan, jendartearen erakundeak presionatzeko, besteak beste. Martxoko greba prozesu bat izaten ari den era berean, zaintza lanak egiten dituzten ordainpeko etxeko langileek beren egoeraz jabetzeko prozesu luze bezain sakona lantzen dutela ziurtatu du. Lehenik eta behin, “gure eskubideen jabe ez bagara, beldurra eta presioa gailentzen dira. Etxeetan intermoduan lanean dabilen emakume gehienak migranteak dira, asko paperik gabe daude eta beren eskubideen jabe ez direnez, beldurtuta daude. Nola batuko dira grebara, askok atsedetik ere ez badute?”. Lanuzteez gain, amantala zintzilikatzea edo besoko morea eramatea moduko ideien garrantzia goraitu du, sinbolikoki bada ere, zaintza lanak ikusaraztea ezinbestekoa baita jendartearen sentsibilizatu eta egoera aldatzen hasteko.

» Silvia Cony Haydee Rivas, Munduko Emakumeak elkarteko kidea harro dago greba feministan zaintza lanen prekarizazioa ozen eta sendo salatuko delako



ZIRGARI
SARIAK

BERDINTASUNA

Ohorezko Saria. Ibilbide pertsonala.

ADELA ASUA

Emakumeenganako indarkeriaren kontrako borroka.

OBLATAS

Ahalduntze eta balio-aldaketa.

ZINEMAKUMEAK GARA!

Erantzunkidetasun eta kontziliazioa.

MUTUALIA



Bizkaia
Foru aldundia
diputación foral



bbk

GREBA FEMINISTA EREDUAK NAZIOARTEAN

Islandia, 1975

Emakumeen %90ak greba egin zuen

1975. urtean, Reykjavik hiriburuan 25.000 emakume baino gehiagok kaleak hartu zituzten. Herrialde osoan emakumeen %90ak greba egin zuen. Banku, eskola, fabrika eta komertzioak itxi egin behar izan zituzten, hau da, herrialdea gelditu zuten. Horren ondorioz, gizonak geratu behar izan ziren zaintza lanetan.

Euskal Herriko mugimendu feministaren helburuetara gehien hurbiltzen den greba eredu da. Oraindik lan asko dagoen arren horrelako greba feminista bat egin ahal izateko, aurtengoa lehen urratsa da, eta martxoaren 8aren ostean ere lanean jarraituko dute "emakumeon prekaritatea hainbat eremutan salatzeko".

Euskal Herria, 2012

Amantalak balkoian

2012ko martxoaren 29an, Euskal Herriko Emakumeen Mundu Martxak *Amantalak balkoira*, emakumeok kalera lelopean pobrezia feminizazioa eta zaintza lan egoera prekariora salatzeko greba deitu zuen. "Egungo greba feministaren aurrerakia izan zela esan dezakegu", dio Naia Torrealдай aurtengoaren antolatzaileetako batek.

Herrialde Katalanak, 2015

Vaga de totes

Herrialde Katalanetan ematen ari den mugimendua, *Vaga de totes* (Guztion greba) izenekoa, eredugarria izan da Euskal Herriko mugimendu feministarentzat.



Hitzaldi eta ekintza ugari antolatu dituzte Euskal Herrian eta harreman estua dago mugimenduen artean.

2015eko maiatzaren 19an egin zuten *Vaga de totes* hainbat hiri, herri eta auzoetan. Guztion grebak greba orokor eredu klasikoak zalantzan jartzea eta lanaren kritika feminista egitea du helburu, historikoki emakumeek egin dituzten eta egungo sistemaren eta bizitzaren sostengua diren lan erreproduktiboak ikusaraziz.

Polonia, 2016

Abortatzeko eskubi-dearen alde

Europako herrialde horretan emakumeek arropa beltzak jantzi zituzten eta bandera beltzak haizatu. Lanera eta eskolara joateari utzi zioten eta bidean zen abortaren legearen aurka egin zuten aldarri. Legeak abortatzea debekatu zuen.



Zaintza lanak pribatizatutako lanak dira, askotan etxean egiten direnak eta horrek oztopatzen du bertan pasatzen denaren berri izatea. Sarri emakume zaintzaileaz eta nagusiaz gain, beste inork ez du egoeraren berri izaten. Atzerritik lanera etorritako emakume horiek, Euskal Herrian beren bizitza sostengatzeaz gain, beren herrialdean familiari ere eutsi behar izaten diote eta presio hirukoitza eragiten die: nagusiarena, bere familiarena, eta beren buruei ezarritakoa. Esplotazioa, lan jardun amaiezinak, atsedetik gabe lan egiteko beharra, beldurra, eta bakardadea jasaten dituzte; prekarietate egoera latza, alegia. Munduko Emakumeen elkarteak Haydee Rivasek zerrenda luzatu du: sexu abusua, bortizkeria, gaixotasunak eta xenofobia.

Etxeko langileok saretuta egoteari garrantzi handia ematen dio Haydee Rivasek: "Ez zara lehen aldian bakarrik joango milaka pertsona dauden manifestazio batera, zure lagunak, kideak babesa beharrezkoa da halakoetara ausartu eta zure egoeratik borrokatzeko". Greban kolektibotasuna bermatzea eta aniztasuna -arraza, gorputz, herrialde, eta abar- bultzatzea ezinbesteko premisak direla iritzi dio. Berak azken urteetan jabetze prozesu sakona landu duen arren, badaki zaintza lanetan dabilzan emakume migrante eta ez migrante askok ez dutela beren eskubideen berri, eta ondorioz lanuzteak egiteko, beren eskubideak aldarrikatzeko, sarean beren buruak babesteko mugatuta daudela. Emakume horiengana iritsi eta norberaren prozesuan babestea beharrezkoa dela aldarrikatu du, nahiz eta badakien lan zaila dela. Emakumeok egoera gogo-

M8-AN GIZONAK

Antolaketa batzarretan gizonen egitekoa martxoaren 8an zein izan behar den ez dute hausnartu, haien ustez gizonen lana delako eta ez mugimendu feministarena; azpimarratu dutena da gizonak aliatu izan behar direla, hau da, "gu gara subjektuak, emakumeon greba dela ulertu behar dute, eurek ez dutela greba egin behar".

12 pista M8ari begira

Espainiako Estatuan egoitza duen Genero Berdintasunaren Aldeko Gizonen Elkarteak (AHIGE) hainbat aholku eman dizkie gizonari. Sare sozialetan asko zabaldu dira eta euskararazko bertsioa ekarri dugu hona. Ondoren 12 gomendioak:

- Aita bazara zure seme-alabek arduratu eta eztabaida zein ikasle greba lagundu (guraso elkarteak, eskolan...).
- Laguna bazara, zure lagunak umek zaindu ditzakezu.
- Lankidea bazara, lantokian emakume* greba zabaltzeko, babesteko, zerbitzu minimoak egiteko edo emakume* lankideen lana egiteko eskaini ahal duzu zure burua. Eguneko soldata mugimendu feministari eman diezaiokezu, edo lantokian emakume* grebarentzat erresistentzia kutxa antola dezakezu.
- Enpresako nagusia bazara, zure enpresan lan egiten duten emakumei* elkartzat adierazi eta errepresalia, trabak eta arazoak saihestu.
- Ikaslea bazara, eskolara joango ez diren emakume* ikaskideak eta ikasleen lanuztea babestu.

- Irakaslea bazara, martxoaren 8an zerrendarik ez pasa. Gogoratu, zure ikasleek hutsegitea justifikatuta dago: kalean dabilta "gu hiltzen ari dira" oihukatzen eta "bizi nahi dugu" aldarrikatzen.
- Zure familian, elkarbizitza taldean edo inguru afektiboan zaintza behar duenik badago, has zaitez egun horretatik aurrera ohituraz emakumeok* betetzen dugun lan horretaz arduratzen.
- Emakume* batekin harreman sexu-afektiborik baduzu, martxoaren 8an kalean egoteko behar duen laguntza guztia emaita.
- Zabaldu mezua zure lagun eta talde guztien artean. Militantea bazara, eraman zure eremu politikora.
- Ez kontsumitu saltokietan. Batu zaitez kontsumo grebara.
- Martxoaren 8an mobilizazioetara bazoaz (horrek esan nahi du aurreko egoeretan zure bizitzan ez dagoela zure laguntza behar duen emakumerik*), jar zaitez atzeko aldean, agindurik eman gabe, eta manifestazioa zuzentzeko asmorik gabe, laguntzeko jarrearekin.
- Greba egunaren aurretik eta ondoren beste gizonetakoekin bildu zaitezke, maskulinitateen inguruan elkarrekin hausnartzeko, lan pertsonala eta kolektiboa egiteko, zure pribilegioez kontzientzia hartzeko eta menderakuntzarik gabeko jendartearen lortzeko bidean pausoak emateko.



rrak bizi behar izaten dituzten arren, Haydee Rivas harro dago geroz eta gehiago ari direlako elkarteetan parte hartzen, saretzen, eta elkarren babesari esker, duten egoeraz eta eskubideez jabetzen: "Protagonistak gara, geroz eta gehiago", dio pozik.

Gizonak izan ditu gogoan Haydee Rivasen: "Ezinbestekoa da batez ere gizonak ohartzea zaintza lanei esker ez balitz, bizitzak ezingo lukeela aurrera egin eta denon artean banatu behar direla".

Martxoaren 8 hau, desberdina

Aurtengo martxoaren 8ak aurreko urtetakoekin dituen desberdintasunez galdetuta, Leire Murguialdayk, Donostiako asanblada feministako kideak zera aipatu digu: "Lehenengo urtean ere lanuzte batzuk egin ziren, baina aurten jada prozesu bat abiatu dugu eta hori da garrantzitsuena, greba feminista antolatzeko lantzen ari garen prozesua bera. Orain arte jai kutsua izan dute martxoaren 8ek eta aurtengoan emakumeentzat elkargune izateaz gain, borrokarako eguna ere badela ikusarazi

GIZARTE EREDU OSOA ALDATZEA HELBURU

Muga guztiak gaindituko dituen greba feminista proposatzen du mugimendu feministak. Aldarrikapenak lan munduaz harago doaz, lanaren kontzeptua birplanteatu nahi du eta horretarako zaintza betebeharrei eta kontsumoari lotutako lanuztearen aldeko apustua egingo du. Manifestuan hala dio: "Bizi dugun lan eta gizarte gatazka ez da sekula konponduko ugalketaren eremuari so egiten ez badiogu. Emakumeek* kalean, etxean, lantokian eta eremu intimoan hartzen duten espazioa berriro moldatu nahi dugu. Gure borrorak lan esparrua, politika, bizitza eta ekonomia zeharkatzen ditu. Hau ez da defentsarako greba hutsa: eredu osoa aldatuko duten proposamen politikoekin aterako gara kalera!".

nahi dugu". Era deszentralizatuan antolatu dira Hego Euskal Herriko grebarako. Herri eta hirietan batzar ireki eta parte-hartzaileak egin dituzte azken hilabeteetan eta leku bakoitzean dituzten aukera eta indarren arabera egin dute greba eguneko antolaketa, ekintzak ere era batekoak edo bestekoak izango dira. Eskualde bakoitzaren idiosinkrasia kontuan izatea ezinbestekoa irudituko zaio Euskal Herriko mugimendu feministari, eta horregatik, helburu bera izanik, ekintza eta antolaketa autonomoa bultzatzen dute, nazio mailako saretzea bideratzen duen lantaldea ere edukita koordinazio orokorra egon dadin. Alabaina, eguneko bi momenturako proposamen bera egin dute: 12:00etan ekintzak eta arratsaldean manifestazioa.

Murguialdayk "ekintza desobediente" gisa definitu ditu han eta hemen egingo direnak. Torrealdai ondokoa gehitu du: "Grega feminista hau greba ohikoetatik bereizten da ez direlako sindikatuak greba deitzen dutenak, mugimendu feministak sindikatuen alianzarekin baizik". ■

Emakumeok* sistemari planto!

Guztia geratzea gure esku

#EmakumeokPlanto

Martxoak 8 Greba feminista 2018

ELA
EUSKAL SINDIKATUA



Martxoak 8
Emakumeok
plantox



Plantoxak

11:00etatik 15:00era •
18:00etatik 22:00etara

Mobilizaziokak

12:00etan • 20:00etan



URRE BERDEA

Modako fruitua da. Mendebaldeko herritar urbanoek produktu onuragarrien "erregina" esaten diote, haren koipeak gizentzen ez duelako. Baina ahukatearen produkzioa odolez zikinduta dago. Mexikoko Michoacan estatua da adibiderik esanguratsuena.



Ane Irazabal Elkorbarrutia

@Anelrazabal

ARGAZKIAK: COSIMO CARIDI

Héctor Torres ahukate ekoizleak pistola darama soinean. Mexikoko Michoacan estatuaren bihotzean dagoen Tancitaro udalerrian ez da arraroa nekazariak armatuta ikustea. Pistola batek armada mexikarraren presentziak baino segurtasun handiagoa ematen du. Torres, autodefentsa edo milizia armatuen kidea da: "Lur hauek nire aitarengandik jaso nituen. Eta aitak, berriz, aitonarengandik. Ikusten duzun zuhaitz bakoitza familiako kide bat da".



Tancitaro munduko ahuakate ekoizlerik handiena da. Michoacaneko lurak bolkanikoak dira, eta oso emankorrak urtaro guztietan. Ahuakatearen munduko hiriburua deitzen diote Tancitarori. Bertan 23.000 hektarea daude landatuta eta fruituaren produkzioak 5 milioi dolarreko irabaziak ematen ditu urtero. “Esker oneko zuhaitza da ahuakatea. Landatu eta bost urtera fruituak ematen ditu eta lau hilabetetik behin loratu egiten da. Hemen familia guztiek lan egiten dute fruituaren produkzioan: ereiten, uzta jasotzen edo paketatzen”, azaldu du Torresek. Irabaziak hain dira handiak, ezen hektarea batek 120.000 euro balio dituen. Ez da harritzekoa Mexikon ahuakateari urre berdea deitzea.

Edonola ere, Tancitarok udalerrri go-tortua dirudi. Sarrera guztietan barrikadak daude eta ekoizleek errondak egiten dituzte. Michoacaneko txoko honetan gerra odoltsua egin dute ahuakate produktoreek eta Zaldun Tenplarioak izeneko drogaren kartelek. “Narkotrafikatzaileak gure lurak lapurtzen saiatu

Tancitaron, indar komunitarioek segurtasun egitura sortu dute. Ahuakatearen gerraren aurretik nekazari soilak ziren gazteak polizia bihurtu dira. Militarrek bezala jantzita doaz eta erasorako fusilak daramatzate soinean.


» **Narkotrafikatzaileak jabetu ziren ahuakateak metanfetaminak baino diru gehiago ematen zuela. “Kuota kobratzen hasi ziren. Haien mehatxuen aurrean makurtzen ez ziren ekoizleak eta senideak bahitu zituzten”**

dira. Diruaren usainak erakarri ditu”, dio ekoizleak.

Torresek ondo baino hobeto gogoratzen du Zaldun Tenplarioak lehen aldiz iritsi ziren unea: “Duela hamar urte modu baketsuan aurkeztu zitzaizkigun. Basoetan metanfetamina prestatu nahi zutela esan ziguten. Errepideak asfaltatu zituzten eta argindar sarea eraiki zuten. Haien haienari ekin zioten eta guk gureari eutsi genion”. Halere, drogaren merkaturia kontrolatzen duten narkotrafikatzaileak azkar jabetu ziren ahuakateak metanfetaminak baino diru gehiago ematen zuela. “Hilabete gutxiren buruan 3.000 pesoko kuota (130.000 euro inguru) kobratzen hasi ziren. Haien mehatxuen aurrean makurtzen ez ziren ekoizleak eta haien familiak bahitu zituzten”.

Autodefentsen sorrera

Garai hartan Héctorren anaia zen Tancitaroko alkatea: Salvador Torres. “Mehatxuak areagotu zirenean, laguntza eskatu genion Felipe Calderónen Go-



Argazkietan,
Torres anaiak eta José Manuel Mireles.

bernuari. Ez zuen ezertarako balio izan. Estatuak armada zabaldu zuen, baina estortsioek, bahiketek, lapurretek eta hilketek bere horretan jarraitu zuten –gogora ekarri du politikari ohiak–, gure lehengusua hiru aldiz bahitu zuten. Hirugarren aldian ez zen itzuli”.

Tancitaroko biztanleak ziur daude armadak ezikusiarrena egiten zuela narkotrafikatzaileekin: “Horregatik sortu genituen indar komunitarioak. Ahuakate lurren jabeak ezkutuan bildu ginen eta justizia gure esku hartzea erabaki genuen”, oroitu du Salvadorrek. Hala, herritarrek armak erosi zituzten eta autodefentsa mugimendua hezurramitu zuten. Lehen urratsa: Mexikoko polizia eta armada Tancitarotik botatzea eta zerotik hasia.

Michoacaneke txoko guztietara zabaldu zen indar komunitarioaren aurpegiak ezagunena José Manuel Mireles da. Kirurgialari ohiak autodefentsen babesa dauka egun ere. Horregatik da ziurrenik drogaren kartelen jomuga nagusia eta ez du toki berean lo egiten egun bat baino gehiago. Michoacaneke kostaldean dagoen hotel batean onartu du Mirelesek gurekin batzea: “Mexikoko Gobernuak zeharo ustelduta dago. Narkotrafikatzaileen diruak edozein politikari erosi dezake. Narko-estatua da hau”. Lider politikoarentzat, Mexikon nagusi den eguneroko indarkeriaren ardura-dun bakarra gobernua da, ez krimen antolatua: “Estatuak guztiz abandonatu ditu gure herrialdeko txoko gehienak. Zer egin dute drogaren kartelek? Hutsune horiez baliatu dira edo hutsuneak sortzeko politikariak erosi dituzte”.

Mirelesek uste du Mexikoko herri-tarrak babes gabe sentitu direla urte gehiegitan: “Zoritxarreko narkoek modu honetan lortzen zuten lurren kon-

» **SALVADOR TORRES:**
“Armadak ezikusiarrena egiten zuen eta horregatik sortu genituen indar komunitarioak.

Ahuakate lurren jabeak ezkutuan bildu ginen eta justizia gure esku hartzea erabaki genuen”

» **JOSÉ MANUEL MIRELES:**
“Estatuak guztiz abandonatu ditu gure herrialdeko txoko gehienak. Zer egin dute drogaren kartelek? Hutsune horiez baliatu dira edo hutsuneak sortzeko politikariak erosi dituzte”

trola. Ahuakate ortuaren jabearengana hurbiltzen ziren eta 1.000 peso (44 euro) eskaintzen zioten milioi bat peso (44.000 euro) balio zuen hektareagatik. Jabeak ezetz erantzunez gero, zera esaten zioten: “Ez baduzu nahi, zure alargarunari eskainiko diogu”. Azkenean senarra, amaztea, seme-alabak, ilobak eta

bizilagunak akabatzen zituzten. Zergatik? Lurrak inork erreklama ez zitzaizkan”.

Autodefentsen liderrak gogoratu du polizia komunitarioak 3.700 ahuakate-hektarea askatu zituela narkoen atzaparretatik. Denak oinordekorik gabe.

Borrokaren instituzionalizazioa

Mirelesek argi dauka autodefentsak la-saitzen direnean krimen antolatua ber-riz ere jabetuko dela Michoacanez. “Egunero zapaldu nahi gaituzte, egu-nero ostu nahi dituzte gure lurrak... Ez bada krimen antolatua, narkotrafika-tzaileak babesten dituen gobernua da. Herriak ulertu du aske izateko modu bakarra dela gure kabuz defendatzea. Ezin gara inorekin fidatu”.

Baina azkenaldian liskarrak izan dira Mexikoko armadaren eta autodefentsen artean. Militarrek hainbat operazio egin dituzte polizia komunitarioari armak kentzeko. Izan ere, Enrique Peña Nietoren Gobernuak erabaki du Michoacanen “ordena” berrezartzea. Estatuaren estrategia autodefentsa mugimendua zaitzea da. Hala, 2014an Mireles kartzelaratu zuten legez kanpoko armen jabetza atxikita. Autodefentsen liderrak hiru urte egin ditu kartzelan eta giltzape-tuta zegoen bitartean bi aldiz jo dio bihotzekoak.

Estatuaren indarkeriak eztabaida sako-na bultzatu du autodefentsen artean. Borrokatzen jarraitu ala borroka insti-tuzionalizatu? Tancitaron, adibidez, in-dar komunitarioek CUSEPT (Cuerpos de Seguridad Pública de Tancitaro) izeneko segurtasun egitura sortu dute. Gerraren aurretik nekazari soilak ziren gazteak polizia bihurtu dira. Militarrek bezala jantzita doaz eta erasorako fusilak daramatzate soinean. Posible da gaz-te hauek ere lehenago edo beranduago



ustelkerian erortzea? Torres anaiek ez dute hori uste: “Herriko gazteak dira, eta beraz, haien lurak maite dituzte. Gainera, soldata altua dute”. Mirelesek aldiz, tristuraz dio autodefentsen mugimenduak traizio egin diola hasierako espirituari: “Borroka ofizializatu egiten den unean, borroka izateari uzten dio”.

Deforestazioa

Ahuakatea nahuatla hizkuntza uto-aztekako *ahuacatl* hitzetik dator eta esanahi oso bisuala du: zuhaitzaren testikulua. Bada, fruitua arbolan zintzilikatzen da pisuagatik lurrera erortzen den arte. Mexikon landatzen den ahukatea Hass motakoa da, hau da, jatorrizko zuhaitz *criollo*aren eta Hass aldaeraren arteko hibridoa.

Ahuakateak eragindako deforestazioa.

Michoacanen produzitzen diren ahukateen %90 AEBetara esportatzen dira. Edonola ere, nazioarteko eskaera asko hazi da azken urteotan: “Merkatu europarraren eta japoniarraren presioa gero eta gehiago nabaritzen dugu. Europan modako fruitua izendatu dute. Japonian, sushia egiteko funtsezko osagaia da”, azaldu du Torresek. Horrek produkzioaren gorakada ekarri du ezinbestean. Mexikon 10 ahukate-hektarea landatzen dira batez beste egunero. Luis Miguel Morales Mexikoko Unibertsitate Nazional Autonomoko irakaslea da eta deforestazioan aditua: “Ahuakatea droga be-

zalakoa da, aberats egin zaitzake, baina diruaren hotsak erakarrita, ekoizleek inolako kontrolik gabe landatzen dituzte zuhaitzak”.

Moralesek drone baten laguntzarekin erakutsi ditu deforestazioaren ondorioak: “Artea da Michoacaneko zuhaitz autoktonoa. Tamalez, baso hostotsua desagertzeko zorian dago. Ere mu honetan bi kilometro koadro ebaki dituzte ahukatea landatzeko”. Ahukate zuhaitzak ur asko behar du eta gutxika akui-feroak lehortzen ari dira. Irakaslearen aburuz, ustelkeria politikoa dago deforestazio masiboaren atzean: “Basoak estatuarenak dira. Nola da posible bi kilometro koadro moztea agintariak konturatu gabe?”. Urre berdeak gobernuaren isiltasuna erosi du. ■



Potere al Popolo hautagaitza

ESPERANTZA IZPI BAT EZKERRARENTZAT ITALIAKO HAUTESKUNDEETAN



Xuban Zubiria Elexpe

@xubanzubiria

ARGAZKIA: POTERE AL POPOLO

Italian ospatzear diren hauteskunde orokorren atarian, zenbait mugimendu sozialen erraietatik fenomeno politiko berria sortu da, Potere Al Popolo. Krisiak eta prekarietateak gogor kolpaturiko italiarren ahotsa izan nahi du martxoaren 4ko hauteskundeetan.

» Egun gutxitan hauteskundetara aurkezteko beharrezkoak zituen 25.000 sinaduren hirukoitza lortu zuen Potere al Popolo-k

» Martxoaren 4an Italiako ezker eraldatzailearen erreferente bakar gisa aurkeztu da Potere al Popolo

» Italiako eragile sozial andanaren babesa izanik ere, inkesten arabera zail izango du Carofaloren zerrendak parlamentuan sartzeko botoen %3ko langa gainditzea

Abenduan Sergio Matarella Italiako Errepublikako Presidenteak parlamentua disolbatu eta hauteskunde orokorrak deitu zituen. Italiako ezkerrentzat hauteskunde hauek badakarte berritasunik, aipagarriena Potere al Popolo zerrenda herritarraren agerpena izan da. Egun gutxitan hauteskundetara aurkezteko beharrezkoak zituen 25.000 sinaduren hirukoitza lortu ostean, inork espero ez zuen bezala sartu da mugimendua hauteskundeetan lasterketan.

Alderdi tradizionalen izaera eta egiturarik gabe, Napolin sortutako herri inizatiba aparra bezala zabaldu da Italia osora. Proiektuaren lema eta zerrendaburua Viola Carofalo aktibista napolitarra da. Alderdi komunistaren hauteskundeetarako hautagaitzak po-

rrot egin ostean, martxoaren 4an Italiako ezker eraldatzailearen erreferente bakar gisa aurkeztuko da Potere al Popolo.

Egunotan ezkerreko zenbait pertsonaia ezagunek babesa adierazi diote Carofaloren zerrendari. Horien artean daude Ken Loach zinemagile famatua edo Paolo Sollier futbolari ohia, besteak beste. Hurrengo egunetan Napoliko alkate Luigi de Magistris-ek eta ezkerreko hainbat pertsonaia esanguratsuk Potere al Popolo-ren aldeko bozka eskatzea espero da.

Italiako eragile sozial andanaren babesa izanik ere (No TAV!, USB, CGIL...), ikusteko dago zerrenda herritarrak parlamentuan sartzeko lortuko duen. Parlamentuan ordezkari izateko hauteskunde lege berriak exijitzen duen bozken %3a gainditzea zaila izango dute. Italiako hainbat hedabidetan argitaratutako inkesten arabera, botoen %2-%2,5 eskuratuko luke hautagaitza berriak.

“Espero den abstentzio handiaren ginetik, inoiz bozkatzen ez dutenengana iritsi eta estatuarentzat ikusezin bihurtu diren horiek ere konbentzitu nahi ditugu”, zioen Carofalok La7 telebista kate italiarrari eskainitako elkarrizketan. Ezkerreko hauteslegoaren babesa eskuratzeko bidean, aurrean izango ditu Bost Izar Mugimendua (M5S), orain arte gobernuan egon den Matteo Renziaren PD alderdia eta Pietro Grassoaren Liberi e Uguali alderdi sortu berria.

Zentro-ezkerra zatitua

Zentro ezkerreko zatituta iritsi da 2018ko hauteskunde orokorretara. Azken legegintzaldian gobernuan egon den PD alderdiak zuzendutako austeritate politiketik arrakalak eragin dituzte sozialdemokrazian.

Haustura horren ondorio politikoe-tako bat, Pietro Grasso buru duen Liberi e Uguali alderdiaren sorrera izan da. Lehen ministro ohi eta PDko buru Matteo Renziaren hautagaitzak, zentroko hauteslegoa bereganatzeko, bere mezu nabarmen moderatu du. Bitartean Liberi e Uguali mugimendua ezkerreko botoa monopolizatu nahian dabil, PD-k eskuinaren tesiak besarkatu dituela argudiatuz.

Iragarpenak txarrak dira bi alderdientzat. Ikusteko dago martxoaren 4aren ostean irekiko den eszenatoki berrituan

alderdiek zein bide hartuko duten. Zentro-ezkerraren krisia probestu dezake Potere al Popolo-k bere freskotasunaren aldarria egin eta ezkerreko benetako alternatiba bezala agertzeko gizarte italiarraren aurrean.

Bost Izar Mugimendua (M5S)

Beppe Grillo komediagileak sortutako M5S alderdia indartsuen agertzen da inkestetan eta lehen indarra izateko aukera asko du. Halere, ezinezkoa izango du gobernurik eratzea beste alderdi nagusiren batekin akordiorik lortu ezean. Grilloren alderdiak eta PD-k osaturiko gobernuaren aukera, egun urruti atzetan da.

M5S-k sorreran aldarrikatutako balore ezkerretatik urrun, azken urteetan immigrazioaren aurrean agerturiko jarrera atzerakoiek faktura pasa diezaiokete bere boto emaleen aurrean. Are gehiago pasa den astean Maceratta hirian eskuin muturreko militante batetik etorkin afrikarren aurka egindako atentatuak sortu duen haserrearen ostean. M5S-ren diskurtso populista arriskutsua salatzea izango da Potere al Popolo-k martxoaren 4 bitartean izango duen beste erronketako bat, ezkerreko botoaren zati bat bereganatu nahi badu behintzat.

Eskuina eta eskuin muturraren aliantza

Aliantzak beharrezkoak izango diren eszenatoki honetan, gobernu osatze-ko aukeren artean indar handien hartu duena eskuineko hainbat alderdik osaturikoa litzateke. Berlusconiaren Forza Italia, Lega Nord eta Fratelli di Italia alderdi xenofobo baturak eskuineko gehiengo parlamentarioa osatzea ekar lezake. Hortik gobernu eratu den edo ez, ikusteko dago.

Hauteskundeetako emaitzei beldurrik izan gabe, Potere al Popolo-ren sorrera, Italiako mugimendu sozialek azken urteetan bizi duten ahalduzko giroaren seinale da. *Actual local, think global* filosofiaren barruan, Napoliko auzo asanblada bateko ideia hauteskunde orokorretan alternatiba izan nahi duen tresna bihurtu da. Emaitzak emaitza, ez da makala Italiako eragile sozialek hilabete gutxiren buruan lortutakoa. Hauteskundeetan ostean ere eta gobernuari itxaron gabe, esperientzia hau sostengatu duten eragileek herrigintzan jarraituko dute. ■

#NíSéCGL

Nola izango da ingelesa hizkuntza modernoa, “croissant” esateko berezko hitzik ez badu?

Hizkuntza gutxiak interneteko itsasoan itotzeko arriskua agerikoa da, baina, zuhur jokatzuz gero, sarea txikien bozgorailu ozena izan daiteke. Horixe da Ciara Ní É irlandera hitzunak Twitterren lortu duena. Ingeles hitzunik uharteko berezko mintzairaren inguruan dituzten aurreiritziak, uste okerrak eta gutxiespen keinuak salatzeko traola arrakastatsua sortu du, #NíSéCGL (euskaraz, #EzDaZuzena edo #Ez Dago Ondo). ARGIAk Ní Érekin hitz egin du.



Dabi Piedra

Irlandera beste edozein hizkuntza bezain bizia eta modernoa da. Uharteko hainbat biztanle irlandera bizi dira egunero, baina beste herritar askok baztertu egiten dute, erabilgarritasunik gabekoa delakoan. Hartara, irlandareren inguruan entzun dituzten uste okerrak beste hizkuntza batzuei buruz esanda nola geratuko lirakekeen txio-katzeko eskatu die Ciara Ní Ék irlandaradunei. Irlandera dioen tokian jarri ingelesa, frantsesa, txinera... eta hara, baieztapenaren zentzugabetasuna agerian geratzen da.

“Nola izango da ba ingelesa hizkuntza modernoa, *croissant* esateko berezko hitzik ere ez du eta?”, bota du txiolari batek, irlandarari buruz entzun behar izan dituen uste mingarriei buelta emanda. Beste batek dio erreserba egiteko orduan Air France-n sistemak azentuak onartu ez eta Chloé izena ezin jartzea pentsaezina litzatekeela. Bada, Irlandako Aer Lingus hegazkin konpainiak ez du bere azpiegitura egokitu irlandareren zeinu tipografikoetara.

Beste txio batean herriaren izena adierazten duen errepedeko seinalea ageri da, irlandera eta ingelesez.


Txioak hala dio: “Ingelesa zerga ordaintzaileentzako diru xahuketa galanta da!

Beste txio batean frantsesa erabili dute: “Ezin da ahaztu, jakina, Frantzian frantses hitzun eragile batzuk badirela. Turistak Proventzara joatea nahi baduzu, egin ulerkaitz toki hura, frantseseko seinaleak inozoak eta bakarrak dira”.

Halako dozenaka txio irakurri ahal izan ditugu asteotan Twitterren, aurreiritziak hausteko gogoia egon den seinale. “Irlanderaz ez dakitenei erakutsi nahi izan diet zein erridikuluak diren hitzetik hortzera darabiltzaten ideia batzuk, irlandera hitza beste hizkuntza batekin ordezkatzuz gero garbi ikusten da”, kontatu dio ARGIAri Ciara Ní Ék. Irakaslea eta idazlea da bera, eta aireportuan zegoela bururatu zitzaion kanpaina hau.

Bizipenak partekatu

Hitzunak ahalduntzeko eta komunitatea sendotzeko era erraz baina eraginkorra izan da #NíSéCGL traola. “Salutako esperientzia asko oso orokortuta daude irlandera bizitzeko aukera egin dugunon artean, egunero esaten dizkigute halakoak eta normaltzat hartzeko arriskua dago”, dio Ní Ék. “Positiboa da



gure bizipenak partekatu ahal izatea eta elkarri babesa emateko espazioa sortu izana, gure hizkuntzaz esaten direnak ez daudela ondo adieraztea, hortik dator traolaren izena”.

Irlandako Errepublikako hizkuntza ofiziala denez, herritar guztiek eskolan ikasten dute irlandera. Baina euskarekin gertatzen den bezala, eskolak ez du hizkuntzaren erabateko zabalkundea bermatu. Ikasgai astunekin eta irakurketa aspergarriekin lotzen dute herritar askok irlandera, eta eskolatik kanpo hitz egiteari uko egiten diote. Eskola irlandarari muzin egiteko aitzakia bihurtu da gizartean. Alabaina, Twitterreko kanpaina honetan parte hartu duen beste txiolari batek zera galdetu du: Ingaltarran norbaitek ingelesez hitz egiteari utzi al dio eskolan Shakespeare irakurtzeaz gogaitu zelako?

Ciara Ní Éren ustez, irlandera ikusgaitasuna behar du gizartean: “Alde bakoitzeko ispiluaren gisakoa da egoera, guk ingeles hitzunak ikusten ditugu, baina haiek gu ez”. Eskolatik kanpo ez dutenez irlanderaekin inolako hartu-emanik, ez dute beste hizkuntzen pare jartzen: “Askok ez dakite irlande-



Goian, Ciara Ní É, irakasle eta idazle honek jarri du abian Twitter bidezko kanpaina. Txioei umorea darie: "Frantsesezko seinale inozo horiek" batetik, "dirua xahutu eta bi hizkuntzetan egindako seinaleak" bestetik.

ra adin eta egoera guztietako pertsona batzuentzat eguneroko hizkuntza bizia denik ere".

Hausnarketarako abiapuntua

Nolanahi ere, Ní Ék garbi utzi du kanpaina honen helburua ez dela irlandez hitz egiten ez dutenei eraso egitea. Are gehiago, hedabide ingelesetan izan duen oihartzun zabalarekin pozik da. Txio gehienak ingelesez idatzi dituzte eta, horregatik, uharteko komunikabide handienek tartea egin diote. "Hemendik

atera dezakegun gauza on bat da, beharbada jendeak hausnartu egingo duela irlandezari buruz duen ikuspegia egokia ote den, eta irlandezadunen aurka dituzten aurreiritziez ohartuko direla".

Irlanderaz bizitzeko dauden trabak eta hiztunek pairatu behar dituzten gutxiespenak ohikoak dira hizkuntza txiki guztietan, hizkuntza erraldoi eta hegemonikoen ondoan, edo azpian, bizi-rautea ez baita lan samurra. #NíSéCGL traolak salatu dituen esaldi asko ezagunak egiten zaizkigu euskaldunoi ere.

Adibidez, irlandera "politizatuta" dagoela entzutea arrunta da Errepublikan eta, zer esanik ez, Ipar Irlandan.

Horregatik, txalotzekoa da irlandezaren aldeko kanpaina xume batek halako oihartzuna izatea. Are gehiago, kontuan hartzen badugu 2018a *Bliain na Gaeilge* dela, hau da, Irlanderaren Urtea. Hizkuntza globaletan globalenaren aurrean ahalduntzeko zirrikitua aurkitu du irlandezadunen komunitateak, gainerako hizkuntza gutxituentzako eredu izan daitekeen kanpaina bati esker. ■

ARGIA

943 371 545
 publiz@argia.eus
 www.argia.eus/tarifak

**Zure jendea,
 zure hedabidea,
 zure iragarkia.**

Jarri publizitatea hemen

ONTZINEDA AUZIA

ZOR BIDE GABEAREN EKAITZ PERFECTUA LIZARRAKO ZERUAN

PSN eta UPNren iraganeko udal agintaldietako alkateek operazio urbanistiko batean sinaturiko klausula osagarriek 14 milioi euroko zuloa utz dezakete Lizarrako Merindadeko hiriburuko diru-kutxetan, urtebeteko udal aurrekontua adina. Beste *corralito* bat Nafarroako bihotzean.



Urko Apaolaza Avila

@urkoapaolaza

ARGAZKIAK: ARGAZKI PRESS / J. F.

Lizarran duela urte batzuk kirol instalazio bat eraikitzeke operazio urbanistikoak buruhauste handiak ekarri dizkio udalari eta kalte ugari herritarrei, egungo alkate Koldo Leozen (EH Bildu) arabera orain kiebrara eraman baitezake udalerrria. Nafarroako Kontuen Ganberak kaleratu berri duen txostenak susmo horiek baieztatu baizik ez ditu egin.

Proiektua 2004an onartu zen, Lizarrako Udalean PSN zegoela, Ontzineda inguruneke 90.000 metro koadroko lur eremuetan “presentziarik gabeko arkitekturaren” bidez kirol hiri handi bat eraikitzeke helburuz, ideia lehia-ketaren irabazlearen esanetan. Lorenzo Barno arkitekto lizarratarrak Raíces (Sustraiak) memorian azaltzen duenez, natura “moldatu behar zen bere esanahi osoa aprobetxatzeko”, eta horrek “mugarik gabeko interbentzioa” eskatzen zuen. Baina gauza bat zen proiektua, eta bestea hori aurrera ateratzeko zein bide aukeratuko zuten agintari publikoek: hurrengo urteetan birkalifikatze eta desjabetze ugari egin zituzten hi-

tzarmenen bidez, espekulazioari atea irekiz.

UPNk 2007an alkatetza hartu zuenean ekimena baliogabe geratu zen ordea. Alde batetik, udalak kirol hiri eraikitzeke Nafarroako Gobernuak emandako milioi bat euroko dirulaguntza desbideratu zuen futbol zelai bat berritzeko. Bestetik, administrazioarekiko auzien salak hainbat lurjabe jarritako helegiteak onartu zituen, birkalifikatzeak bertan behera utziaz.

Eta hala ere, bai PSNren garaian, bai UPNrenean ere, hitzarmenei klausula kaltegarriak erantsi zizkieten, eta ondorioz, lurjabeek eta eraikuntza-promotoreei ordaindu beharreko diru kopurua izugarri handitu zen.

EH Bilduk 2015ean lortu zuen hiriko alkatetza, Geroa Bai eta Ahora-Orain-en babesari esker. 2017ko irailean, indar horiek publikoki salatu zuten Ontzineda operazioak udalerriri sorturiko egoera larria, eta orain Nafarroako Kontuen Ganberak fiskalizazio txostena egin du Nafarroako Parlamentuarentzat –EH



Bilduren eskariz-. Bertan azaltzen denez, agintaldi horietako arduradun politikoek kudeaketa txarraren eraginez Lizarrako Udalak “14 milioi euroko kalte ordainari egin beharko lioke aurre”.

Gobernu batzordearen baimenik gabeko sinadurak

Udalak lurjabeekin egindako tratua eraren arabera, Ontzinedako terrenean ordainetan beste lur batzuk emango zizkien –Ibarrako sektorea deitua– han etxebizitzak egiteko promesarekin, eta zortzi urtetan hirigintza aprobetxamendua garatu ezean, dirutan ordainduko zien beste lur horiek balio zutena, kanpo-aholkulari batek finkatutako prezioan: 43,94 euro metro koadroko.

Kontuen Ganberak ordea, “oso kontuan hartzeko” klausula batean jarri du azpimarra: udalak lurjabeen batekin prezio altuagoa hitzartuz gero, besteek ere diru hori jasotzeko eskubidea izango zutela.

Eta halaxe egin zuen. Lur sail bati 108 euroko prezioa onartu zion –besteena



Lizarrako egungo udal gobernuaren (EH Bildu, Geroa Bai eta Ahora-Orain) agerraldia 'Ontzineda' auziaren inguruan. Agintera iristean faktura baten "haritik tiraka" hasi zirenean konturatu ziren hiriak inoiz izan duen "finantza mehatxu handienaren" aurrean daudela.

baino %245 gehiago-, lurjabearen tasazio pribatu bat bere eginez, inolako arrazoirik eman gabe. Hala, hirigintza plana aurrera atera ezean guztira ordaindu beharrekoa, 4,13 milioi euro izatetik 10,15 milioira igaro zen kolpe bakanrean.

Klausula osagarri horiek PSNko alkate Maria José Fernandez Aguirrek sinatu zituen eta hurrengo alkateak, UPNko Begoña Ganuza Bernaolak –egun kargu publikoa du Nafarroako parlamentari bezala– luzatu egin zituen. Txostenaren esanetan, sinadurak udal gobernu batzordetik pasa gabe egin ziren eta Kontuen Ganberaren ustez beharrezkoak ziren batzorde horren eta osoko bilkuraren baimenak. Alkateek ez zuten esumenik, alegia.

Are gehiago, zerga erakundeak ez du aurkitu hitzarmenak justifikatzeko txosten teknikorik eta "aipatzekoa da, bestalde, hitzarmenen inguruko aholkulari, kontrol eta jarraipen lanak kanpoko enpresen esku utzi zituela Udalak".

Ganuzak txostenari jarritako alegazioetan dio teknikariek esan ziotela beharrezkoa zela "nire sinadurapean jartzen diren dokumentu batzuk sinatzea".

Urtebeteko udal aurrekontua adina kalte-ordain

Egungo udal gobernuak Ibarra sektoreko hainbat partzelatan berriz egindako tasazioek erakusten dute metro koadroak egiaz 2,25 euroko kostua duela –berriz ere nekazaritzarako lurrrak baitira– eta gehienez ere 211.536 euro ordaindu beharko lizkiekeela lurjabeai. Baina klausula horien ondorioz 14 milioi ordaintzera derrigortuta egon liteke.

Lizarrako Udalaren 2018ko aurrekontua 11,7 milioi eurokoa da. Datu

hori eskuan uler daiteke Koldo Leozek joan den udazkenean Nafarroako Parlamentuko agerraldian alarma jo izana: "Hiriak inoiz aurre egin dion finantza mehatxu handiena bihurtu da". "Negar saio bat egitera etorri zara", erantzun zion Inma Jurío PSNko parlamentariak lizarratar guztien ordezkariari.

Hortik hilabete batera, 2017ko urriaren 26an Nafarroako Parlamentuan egindako politika orokorreko kontrol plenoan, Jose Javier Esparza UPNko buruak hitzeman zuen Uxue Barkosen gobernuak hartutako neurri guztiak atzera botako zituela boterea iristean. Barkosek segidan: "Beste Ontzineda bat hitzematzen ari zara?..."; baina lehendakariak ezin izan zuen amaitu, Begoña Ganuzak saioa eten zuen oihuka "hau ez dut toleratzen!" esanez. Hirigintza operazioaren atzean egindako irregulartasunak gero eta ageriago geratzen ari dira, eta orain Kontuen Ganberako txostenak are gehiago itxi du erantzukizun politikoak izan zituztenen gaineko hesitura: "Kontuen Ganberaren konklusioa da hirigintza hitzarmenek ez zutela arautegia behar bezala bete".

EH Bilduko alkateak ere datu harri-garriak eman ditu, esaterako lurrak eskuratu zituzten hiru eraikuntza-promotoretako bi –Actividades Alhama SL eta Promociones Herchi SL– hitzarmenak sinatu baino egun batzuk lehenago eratu zirela, bata Tuteran eta bestea Fiteiron. Udaletzeko artxiboan dokumentazioa falta dela ere jakinarazi du Leozek.

Kirol hiria eraikitzeko 22 milioi euro beharko zirela kalkulatu zen bere garaian. Kontuen Ganberak azaldu duenez, orain arte udalak azpiegitura egiteko eta desjabetze prozesu osoan 940.400 euro gastatu ditu –horietatik 790.500 proiektua erredaktatzeko–.

Irtenbideetako bat izan liteke Ibarrrako sektorean etxebizitzak egitea, oraindik zortzi urteko epe barruan baitaude zenbait hitzarmen betetzeko; gainerakoentzat beranduegi da. Bestetik, Nafarroako Kontseiluak hitzarmenak baliogabe utz ditzake, baina orduan lurjabeek indemnezioak eska ditzakete. Udalak diru-kutxan dituen soberakin guztiak erreserbatu ditu etorkizuneko gastuei aurre egiteko –lau milioi euro– eta horrek inbertsiorako ezer gabe utzi du aurten. Zor bidegabearen ekaitz perfektu bat gailendu da Lizarrako soroen gainean. ■



IÑAKI SANZ-AZKUE

Uhandre palmatuaren kasua

Eukalipto eta pinu landaketak kaltegarriak ote anfibioentzat?

Santa Ageda bezperako makiladek esnatu izan balute bezala, negua igarotzeko erabili duen gordelekua utzi eta inguruko hezeguneetara joaten da uhandre palmatua ugaltzera. Orain du garaia. Han izango da putzuaren hondoko hostoen azpian ezkutatua, edo agian bista-bistan, bere kolore arreak hura ikustea zailduko dizun arren. Ugaltzea eta osasun ona izatea, ordea, ez dago soilik uhandrearen esku. Izan ere, Aranzadi Zientzia Elkartearen azken ikerketen arabera, pinu eta batez ere eukalipto landaketak, uhandreen osasunarentzako eta ugalketarako kaltegarriak dira.



Iñaki Sanz-Azkue



EGOITZ ALKORTA MIRANDA

Goiko argazkian, uhandre palmatu arra. Bere ezaugarri nabarmenena atzeko hanketako hatzen artean garatzen den mintza fina (palmatura izenekoa) da. Horrez gain, ugal garaian isatsaren amaieran harizpi fin eta luze bat ateratzen zaie, eta bizkaraldean gandor txikia. Ezkerreko argazkian bi uhandre: goikoa emea da, borobilxeagoa, eta behekoa arra, atzeko hankak palmatuak dituela.

Uhandre palmata Europa mendebaldeko espeziea da, eta Euskal Herrian nahiko animalia arrunta; Nafarroa hegoaldean izan ezik, gainontzeko guneean topatu ahal izango dugu. Arrunta izateak, ordea, ez du ezagun bihurtzen, eta oraindik ere asko dira gure artean anfibio txiki eta berezi hau sekula ikusi ez dutenak. Ezagutzen dutenen artean, badira “lauhankakoa” deitzen diotenak. Izan ere, adineko askok uhandre palmata lau hankako zapaburua dela uste du. Usteak, ordea, erdia ustel. Uhandre palmata, igel eta apoak ez bezala, heldua denean izango duen forma berarekin jaiotzen da. Emeak uretako belar finetan uzten dituen arrautzetatik aterako dira uhandre jaioberriak.

Arrautza horiek jarri eta euren bizi-zikloa bete ahal izateko lurraren eta uraren beharra dute. Horregatik uhandreek ugaltzeko erabiltzen duten hezegunea ez ezik, hori inguratzen duen lur-eremua ere oso garrantzitsua da. Anfibioak bizirik jarraitu behar badu, biak behar ditu egoera onean.

Hori kontuan izanik, eta putzuek eta euren inguruneek Euskal Herrian izan duten bilakaera ikusita, Aranzadi Zientzia Elkarteko Herpetologia Sailak hainbat ikerketa burutu du azken urteetan. Esaterako, gure putzuen inguruko baso mota eta zuhaitz landaketek bertako faunaren osasunean eraginik baduten edo ez ikusi nahi izan dute. Baso horien artean daude, hariztia bezalako bertako basoak, eta landaketen artean, pinuarenak eta azken urteetan gurean asko ugaritu diren eta eztabaida handia sortu

duten eukalipto-landaketak. Azterketa horiek egiteko, Aranzadikoek espezie bioadierazle bat aukeratu dute. Inguruenari buruzko informazioa emango dien animalia; zein, eta uhandre palmata.

Maider Iglesias-Carrasco eta Carlos Cabido herpetologian doktoeen lan-taldeak ondorioztatutakoaren arabera, bizilekuak, hots, putzua kokatua dagoen inguruneak eragin zuzena eduki dezake uhandre palmaturen osasunean eta emeak arra aukeratzeko prozesuan. Izan ere, hainbat ikerketaren arabera, eukaliptoek lurrera isurtzen dituzten substantziek uhandreen osasunean eta gorputzen ezaugarrietan eragina izan dezakete.

Aranzadiko lan-taldeak Euskal Herriko eukalipto-landaketetan, pinu-landaketetan eta hariztietan harturiko uhandre palmatuak aztertuta ondorioztatu ahal izan duenaren arabera, bertako basoetako banakoek ezaugarri sexualak –hanketako palmaturak, gandor kaudala eta buztaneko harizpia– beharko luketen tamainakoak dituzte. Eukalipto landaketetan, ordea, arrek palmatura, gandorra eta harizpia txikituak dituzte. Pinudietan, tarteko tamainak agertzen dira, nahiz eta eukaliptoen kasuan bezala kalte egiten dutela ondorioztatu duten.

Hori gutxi balitz, ateratako emaitzen arabera, pinudietako eta, batez ere, eukaliptadietako uhandreek erantzun immunologiko eskasagoa dute, eta beraz, osasun egoera makalagoa, hariztietakoek baino. Ikerlarien arabera, osasun egoera txar horrek eragin zuzena du emeak arra aukeratzekoan. Eginda-

EZTEI-DANTZAK UR AZPIAN

Uhandre palmata (*Lissotriton helveticus*) animalia ornoduna da; anfibioa. Igelen eta apoen talde berean sartuko genuke, beraz. Horiekin alderatuta, ordea, badu ezberdintasun nabari bat: buztana. Eta isatsa da, hain zuzen, arrak emea gorteiatzeko, eztei-dantza egiteko erabiliko duena. Otsailetik aurrera, udaberriaren etorrerarekin hasien dira putzuen barruan ur-azpiko dantza egiten. Arra eta emea elkarren aldamenean jarri, eta lehenak isatsa erditik tolestu eta mugitu egiten du, uhin formako mugimendu azkarrak eginez. Emea izango da ondoren arrarekin elkartu ala ez erabakiko duena.

Ugal garaian arrak eta emeak ezberdintzea ez da oso nekeza izaten. Izan ere, garai honetarako arrak bere ezaugarri sexualak garatuta izan ohi ditu. Arra ezberdintzeko ezaugarri nabarmenena atzeko hanketako hatzen artean garatzen den mintza fina (palmatura izenekoa) izaten da. Horrez gain, garai beretsuan, arrei isatsaren amaieran harizpi fin eta luze bat ateratzen zaie, eta bizkaraldean gandor txikia. Emeak arrak baino gorputz lodixeagoak eta borobilagoak izaten dira, eta ez dute palmaturarik izaten.

ko azterketen arabera, eukalipto landaketetako emeek duten osasun egoera makala dela medio, ez dute energia askorik xahutzen arra aukeratzeko. Beraz, baso-motak eragin zuzena edukiko du uhandre palmatuaren etorkizuneko belaunaldietan, ez baitute arrik onena aukeratzeko nahikoa indar.

Ateratako emaitzek ez dituzte leku onean jartzen gero eta ugariagoak diren eukalipto-landaketak, eta aldiz, dagoneko gure artean hain urriak diren hariztiek emaitzarik onenak eman dituzte. Autoreen arabera, gainera, oso litekeena da ikerturiko landaketak basoan bizi diren beste anfibioentzako ere kaltegarriak izatea. Norik esango luke horrelako animalia txiki eta sentikor baten azterketatik horrelako ondorio garrantzitsuak aterako zirenik? Gauza txikiak ere asko baitute esateko ingurumenean... ■

ZER MINEK HIL ZUEN HIGUEMOTA?



Nagore Irastabarrena
Uranga

@irastabarrena

Hispaniola, 1522. Guarocuya kazikea eta haren emazte Mencia de Guevarak konkistatzaileen aurka altxa ziren eta 11 urtez borrokan aritu ondoren bertakoen eta konkistatzaileen arteko lehen hitzarmena sinatzea lortu zuten. Mencia aita Hernando de Guevara euskal itsasgizona zuen, Kolonen lehen espediziotan uhartera iritsitakoa; ama, berriz, Higuemota printzesa, Jaraguako Anacaona buruzagiaren alaba.

Guevara eta Higuemota 1500. urtean “maitemindu” eta ezkondu ziren. Handik aurrera Ana de Guevara izena hartu zuen –edo hartu arazi zioten-. Amerindiar eta europar baten arteko lehen ezkontza izan zen. Kolon anaiek ez omen zuten ezkontza begi onez ikusi eta Guevara atxilotu zuten. Haserre, euskal jatorriko itsasgizonak kolondarren aurka altxa ziren, Guevararen lehengusu Adrian de Muxika buru zutela. Matxinda gogor itzali zuten, Muxika atxilotuta eta exekutatuta.

Baina ez dirudi Muxikak bizia soilik lehengusuaren maitasun harremana defendatzeagatik eman zuenik. Bigarren espedizioan, 1497an, Muxika eta beste batzuk Bartolome Kolonen aurka matxi-



SEVILLAKO UNIBERTSITATEA

Jodocus van Winghe-ren 1598ko grabatua. 1503an konkistatzaileek Jaraguako Anacaona erregina, Higuemotaren ama, eta Hispaniola uharterako beste 80 buruzagi sarraskitu zituzten.

natu ziren eta, ez zen hura urte haietan konkistatzaileen buruzagiek izan zuten barne oposizio bakarra.

Higuemotaren ama Anacaonak ezkontzaz zeukan iritzia ere ez dago garbi. Zenbait iturrik diote berak bultzatu zuela ezkontza, konkistatzaileek zuten jakinduria miresten baitzuen. Hasieran hori hala izan balitz ere, europarren gehiegikeriaren aurka egiten ahaleginduko zen gero erregina –baita larrutik ordaindu ere–.

Beraz, badakigu Higuemotaren ama eta alaba konkistatzaileen aurka borrokatu zirela, baina ezer gutxi dakigu printzesaren beraren jarreraz.

Donald Trumpek Elizabeth Warren senatari demokrataren aurka “Pocahontas” ezizena irain gisa erabiltzeko ohi-

tura itsusia du eta, berriki, Warrennek benetako Pocahontas nor izan zen gogoraraziz erantzun dio AEBetako presidenteari Amerikako Indiarren Kongresu Nazionalan. Pocahontas bahitu, espetxeratu eta bortxatu zutela aipatu du eta haren bizitza “ausardiaz eta minez” beteta egon zela.

Kronikariek –beti ere konkistatzaileen aldekoek– Higuemotaz aipatzen duten kontu urrietako bat da printzesa “minak hil” zuela 1509an, sei urte lehenago senarraren heriotzak eragindako minak. Baina ez dute esaten haren ama urte berean urkatu izanak eragina izan zuela. Eta pentsatzekoa da Higuemotak bizitakoa gertuago dagoela Pocahontasen benetako bizitzatik Disneyko printzesaren maitasun istoriotik baino. ■



BENJAMIN BALLESTER

Balea-arrantza basamortuan

Atacamako basamortuan, zehazki El Medano sakanean, labar-pinturak aurkitu zituzten XX. mende hasieran. Luzaroan aurkikuntza oharkabeen pasa zen, baina mendea geroago margolan gehiago aurkitu zituzten: 328 irudi, 74 paneletan banatuta. 1.000 urte inguru dituzte, burdin oxidoz eginak daude, gehienek itsas eta arrantza motiboak

irudikatzen dituzte. eta baleen irudiak nabarmentzen dira bereziki. Orain, Parisiko Sorbonako etnologo Benjamin Ballesterrek labar-pintura horiei buruzko ikerlan sakona argiaratu du *Antiquity* aldizkarian. Ballesterren hitzetan, “artistek itsas jarduera desertuan irudikatu zuten, artearen bidez ozeanoa basamortuarekin kontzienteki erlazionatzeko”. ■

Hizkuntza lurretik



Jakoba Errekondo

jakoba@bizibaratztea.eus

Nekazaritza ekologikotik harago doazen beste bide batzuk ere badira. Ekologikoak, gure gaurko egun hauetan, araudi jakin bat betetzen dutela besterik ez du esan nahi. Ohiko nekazaritza industrialia edo kapitalistarekin alderatuta ikaragarriko aurrerapausoa da, ez ordea helmuga, zenbaitentzat behintzat. Agroekologia, nekazaritza biodinamikoak, nekazaritza birsortzailea, iraute nekazaritza, nekazaritza hiritarra... Hizkuntza aberasten ari da alorrez alor gure lur sailetan. Eskerrak.

Adibidez, gero eta ohikoagoa da nekazaritza biodinamikoaren eskutik sortutako elikagaiak topatzea. Biodinamikaren oinarrian dago landareek ingurumen



Ikusgarri nabarmentzen omen dira biodinamikoan egindako ardoak. Sagardogileentzako abisua!

osoaren eragina jasotzen dutela. Landareentzako lurra garrantzitsua da, baina baita eguzkia, ilargia eta abar ere. Gaia edo mozkina sortzeko bidean denborak garrantzi handia duenean are eta nabarmenagoa omen da biodinamikaren eragina. Adibidez sagar, udare, mahats eta abarren ardoetan. Gaur egun, adibidez ardogintzan, ikusgarri nabarmentzen omen dira biodinamikoan egindako ardoak. Sagardogileentzako abisua!

Hizkuntzari helduta, gero eta maizago entzuten da nekazaritza erregeratiboa (*agricultura regenerativa, agriculture régénératrice, regenerative agriculture...*). Ez naiz gaur soro horretan sartuko, baina berandu baino lehen euskarazko izen bat jarri beharko ge-

niokeela bueltaka nabilela, *taka* aukera. Facebooken Jurgi Uriarte lagunak, ekologiko hutsa ez baizik eta nekazaritza erregeratiboko hori dela etorkizuna esanez bidali zidan errieta mezuari erantzuteko aukera polita topatu nuen, eta galdera bota: nola esango genuke euskaraz nekazaritza mota hori? Aukera: onbideratzailea, birsortzailea, erregeratzailea edo bere oneratzzailea. Di-da erabaki genuen: bere ama, Itziar Idiazabal Gorrotxategi, filologoa omen, eta haren aukeramen jantziaren esanetara jarri ginen. Nire gustukoena hautatu zuen, "nekazaritza birsortzailea". Izan ere, zein izen egokiago eman etengabe lurrari bizia ematean oinarritzen den nekazaritzari? ■

IRAKURLEAK GALDEZKA

Galderaren bat egin edo gairen bat proposatu nahi badiguzu, bidali mezua landareak@argia.eus helbidera eta orrialde honetan bertan irakurri ahal izango duzu erantzuna.

Kaixo Jakoba. Baratzetxo bat hastear naiz, eta ondoko negutegi bat dela-eta, baratze osoan zehar errenkada bat

itzal edukiko dut pare bat metro zabalekoa. Bertan eguzki gutxi beharko duten barazkiak landatzea dela onena pentsatzen dut. Zeintzuk gomendatzen dizkidazu?

Xabier Bastida

Hostoa kentzen diegun barazkiak onenak: uraza, eskarola, ziazberba, zerba... Udazken negurako porrua, aza jendea... Era berean urte guztia baratzean igarotzen duen marrubiarentzako ere ona izango da.



www.bizibaratzea.eus

EUSKAL HERRIKO AGENDA

Martxoak 1,2,3: Sara

Zuhaitz lepatu edo mugarroei buruzko Europako II. Jardunaldiak. Izena emateko hona idatzi behar da: inscription.colloquetrogne2018@gmail.com.

Martxoak 1: Iruñea

Onuragarri den faunarentzako babes-guneak sortzeko tailerra. 17:30ean, Errotxapeako Ingurumen Heziketarako Museoa.

Martxoak 1: Tuteran

Ekofeminismoa, begirada berri baterako betaurreko berriak hitzaldia. 18:00etan, Rua gizarte etxean.

Martxoak 1: Bilbo

Gaztelugatxeko bioaniztasuna arriskuan, 10 urte Pitusaseko sugandilaren aurka borrokan hitzaldia, Aranzadiko Ion Gariñen eskutik. 19:00etan Ekoetxean, Pelota kalean.

Martxoak 6 arte: Oñati

Ingurumen Jardunaldiak.

ZURE HERRIKO EKINTZEN BERRI EMAN

edukia@bizibaratzea.eus helbidera idatzi edo www.bizibaratzea.eus webgunean bertan, oso erraz.

AGENDA OSOA NOIZNAHI IKUSTEKO www.bizibaratzea.eus

Bizi Baratzea buletina jasotzeko, eman izena

Zure e-postan jasoko dituzu azken artikulak, galdera-erantzunak, agendako ekintzak, hitzak, esaerak, argazkiak... Euskal Herri osoko edukiak biltzen dituen landareei buruzko buletin bakarra jasotzeko, bidali zure e-posta helbidea hona: bizibaratzea@bizibaratzea.eus

Izotz barazkien jardunaldiak Nafarroan



Garazi Zabaleta
@tirikitran

Baratzegintza iraunkorrean askotan errepikatzen den leloa da “garaian garaikoa”. Udatik negu partera zeharo aldatzen da gure baratzeen itxura: aza jendeak, borrajak, apioak, eskarolak, porruak eta bestek hartzen dute protagonismoa neguan. Hotzari eusten dieten barazki horien inguruko lehen jardunaldiak antolatuta dituzte otsailean Iruñean eta Tuteran: Izotz barazkien I. Jardunaldiak.

Izotzari aurre egiteaz gain, hari onura ateratzen dioten barazkiak

Jardunaldien bultzatzaileetakoa da Jose Uranga sukaldaria, Slow Foodeko kidea eta nekazaritza teknikaria. Neguko barazkiek hotzari aurre egiteko dauzkaten mekanismoak eta izotzek barazkietan eragiten dituzten onurez aritu zaigu. “Barazkiek ukitu mikatza izan ohi dute, bereziki onddo eta intsektuei aurre egiteko. Neguan zehar hori behar ez dutenez, landareek substantzia mikatzak –fenolak eta polifenolak batez ere– sortzeari uzten diote”, dio.

Izotzei eusteko, landareek beren energia zuntzak aldatzeko erabiltzen

dutela ere azaldu digu Urangak. Zuntzak hidrolizatzeak eta landareek hotzari aurre egiteko sortzen dituzten substantziek barazkien testuran eragin zuzena dute: “Prozesu horiek guztiak barazkien testura krematsuagoa bihurtzen dute”.

Zaporea, lurraldea eta iraunkortasuna

Jardunaldien helburu nagusia neguko barazkiei balioa ematea izan da eta hainbat esparrutako profesionalak hitz egin dute barazki hauen inguruan: osasunaren, gastronomiaren, ekoizpenaren eta ekologia eta iraunkortasunaren alorretatik landu da gaia jardunaldietan.

Mahai-ingurua, produktuen dastaketa, barazkiak nola garbitu eta prestatu azaltzeko tailerrak, hazien trukeak edota baratzeetara bisitak. Hori guztia eta gehiago izan dute otsailean Iruñean eta Tuteran. Jendearen erantzunarekin gustura gelditu dira antolatzaileak, eta interesa egon badagoela dio Urangak: “Gure kulturaren eta tradizioaren parte dira barazkiok, beharrezkoa da baloratzen jakitea, eta kultura hori mantentzeko lanean jarraitzea”. ■

azoka

JARRI ZURE GAUZAK SALGAI AZOKAN

Nork? ARGIAren Azokan salgai jar dezake edozein herritar, eragile, elkarte, enpresak.

Zer? Era guztietako salgaiak: produktuak, etxeko ekoizpenak, bigarren eskuko gauzak...

Nola? Oso erraz. Sartu argia.eu/azoka helbidean, eta klikatu "Saldu" atala.

Horko formularioa 5 minutuan betetzen da.

Zertarako? Zure salgaiak Euskal Herriko herritar denengana iristeko, balio berak partekatzen ditugun jendearekin harremanak sendotzeko, eta ARGIA proiektua indartzeko.

www.argia.eu/azoka

EGUZKI-LOREAK LANDATZEKO HAZIAK

Zerbait gertatzen da zeure eguzki-loreaz hazten duzunean, izan ere, nolabait ematen du lorearen prozesuaz zaintzen ematen duzun une bakoitzak barruan dugun haziaren zaintza eta indartze prozesua bera bultzatzen duela. Eguzki-loreaz lantzea erritu baten modukoa da, presentzia, begirune eta emozio erritu bat, nor bere buruarekiko lana bultzatzen duena.

Ereiteko garaia da: Eguzki-loreak bi urtean behin izaten du loraldia: Otsail-martxo bitartean ereiten da etxe barruan, 19°C-an gutxi gora-behera. Maiatzean kanpora atera behar da, argitara baina eguzkiak zuzen jo gabe.

Maghú etxearen haziak: Eguzki-lore hazi hauek tenperatura, hezetasun eta oxigenazio maila baxuetan prozesatu dira. Hala, berme handiena eskaintzen dugu etxean zeure eguzki-loreaz landatu eta hazi dezazun. Ontzi bakoitzak 7 hazi ditu. Hauetatik 3-4 haziko zaizkizu.



10 euro

60 salgai ditugu ARGIAren Azokan: argitalpenak, mahai-jolasak, jantziak, ikus-entzunezkoak eta bestelakoak. ARGIA Jendeak musutruk hartu ditzakegun 15 gai ere badira!

Maghú etxeak eguzki-loreekin egindako beste salgai berezi batzuk:



Hazi hegoduna kristalezko ontzian

Hego horiek argia ematen diote haziari lorearen barruan dagoenean eta haziaren hegan egitera bultzatzen dute, hartarako prest dagoenean.

9 euro



Eguzki-lore crema

Orbayu etxeak egiten du artisauek Maghúrentzat. Eguzki-lorearen sustraiarekin beratutako almendra olio du.

18 euro



Eguzki-lore likorea

Sustraiak destilatuz egina. Graduazioa: 30°. Hotz edatea gomendatzen da, 3-5º artean. Eguzki-lorearen zaporea du.

19 euro

GUARDIA ZIBILAK EUSKALDUNON EGUNKARIA ITXI ZUELA 15 URTE

Egunkaria, terrorismoa eta sedizioa



Xabier Letona @xletona

Goizaldean zen telefonoaren txirrinak ohetik altxa eta Joxemari Irazustak zera luzatu zidanean: "Guardia Zibilak Pello [Zubiria] atxilotu dik". Pello? Zeuzkan azalpen apurrak eman zizkidan eta nik ezin nuen sinetsi. Ohera sartu nintzen ostera ere, erreakzionatu ezinik. Buroa jira-biran nuela, minutu pare baten bueltan berriz ere altxa eta Iruñetik Lasarterantz abiatu nintzen.

Baziren beste atxilotu batzuk eta bi-dean eman zidan behar zen pista irratia: Iñaki Uria, Martxelo Otamendi, Luis Goia, Txema Auzmendi... horiek ere atxilotuen artean ziren. "Listo, honek Euskaldunon Egunkariarekin du zerikusirik".

Lasartera iritsi eta Guardia Zibila ego-na zen gure egoitzan, Pelloren eta kazetari honen orduan ARGIAko zuzendari-ordenagailuak eramán zituzten, milaka argazki paper eta CD digitaletan eta beste hainbat dokumentazio. Geroxeago Inma Gomila Ametzagaina Taldeko lankidea eta Egunkariako gerente ohia atxilotu zuten.

Gure euskarazko egunkaria itxi, prentsa eskubidea birrindu, 18 lagun atxilotu, horietako hainbat torturatu, espetxean izan, 150 lagun lanik gabe utzi, dirutzak gastarazi epaiketari begira... eta handik zazpi urtera absolutioa etorri zen: Espainiako Auzitegi Nazionalak deskubritu zigun Egunkaria ez zegoela ETaren aginduetara.

Operazio guztiaz entzun beharreko ondorio ofiziala ez zen txantxetako: hori guztia ez zen estatu autoritario baten jardunaren seinale, aitzitik, zuzenbide estatuaren froga baizik. Herri honen gehiengo oso zabalak, aldiz, argi irakurri zuen: Estatuak euskal kulturari egindako eraso latz eta argia zen.

Oroimenaren alde batean ez barkamenik, ez erreparaziorik, ez kalteordainik... soilik estatuaren inpunitatea geratu da. Dena suntsitu duenak zergatik ez du dena eraiki behar berriz ere? Taimainako umiliazioen gainean inposaketa besterik ezin da eraiki. Memoriaren beste aldean babestu dira herri baten erantzuna eta elkartasunaren irudiak, eta berriro ere euskarazko proiektu periodistiko bat eraikitzeko indarra.

Joan den astean deigarria egin zitzaidan ARGIA n Imanol Olabarriak 1976ko Gasteizko Martxoaren 3ko gertakariaren bizipenez emandako azalpenetako bat. Madrilen atxilotua zegoela, "zein da akusazioa?", galdetu zion abokatuari, eta honen erantzuna, "sedizioa, hau da, Estatuaren segurtasunaren kontra atentatu egitea".

Gasteizko kaleetan langileen esku-bideak defendatzea Estatuaren aurka egitea zen. Josep Lluís Traperok iragan urriaren 1ean Mossoak katalanen aurka ez bidaltzea eta herritarrak ez egurtzea ere sedizioa da Espainiako egungo epai-leentzat; Espainiako legea, herritarrak kolpatu zituzten Espainiako segurtasun indarrek bete zuten. Erreferendum bat antolatzea ere errebelio delitu larria da, terrorismoa izan zen bezala euskarazko egunkari bat egitea.

Espainiari begira, oso inpresio txar eta gogorra uzten dit Egunkariaren itxieraren urtemugak eta egungo gertaera askoren nahasketak: 36ko matxinadaren deiari jarraiki, Espainia atzera doa nabarmen. Etxera begira, euskarazko hedabide baten itxierarekin zerikusia duen gogoeta sektoriala datorrik: euskal hedabideak inoizko egoerarik indartsuenean dira. Eta sikiera hori, asko da. ■

ARGIAkoa egiterakoan emandako arrazoia

"ARGIA indartzen laguntzen dut, bertako kazetaritza independenteak herri eta herritar bezala indartu egiten gaituelako"

Iñaki Agirre Perez, Donostia

Sarean arrantzatua

Kike Amonarriz @KikeAmonarriz

"Madril: etxez inguraturiko 'Audiencia Nacional' bat. Duela 15 urte Egunkariaren itxieraren ondorioz Madrilen bizi eta nozitu genituenak bilduz Argian egin nuen kronika.



AGENDA

Zuloan liburuaren aurkezpen hitzaldiak. ARGIAko Urko Apaolaza AHTko obretako lan baldintzez mintzatuko da.

- Martxoaren 13an, Gasteizen. 19:00etan Oihaneder Euskararen Etxean. Ustelkeriaren aurkako Adil elkarteak antolatuta.
- Martxoaren 23an, Urretxun. 18:30ean Urretxu-Zumarragako Gatzetxean.

ORDU MAGIKOAREN BILA

Zinema (h)abian: Zinema ikasgeletara eramateko proiektu aitzindaria

Zineman, argazkigintzan bezalaxe, eguzkia sartu eta gaua beltz bilakatu arteko une horri ordu magikoa esaten zaio. Argiak urre kolorea hartzen du, leundu egiten da eta itzal luzeagoak sortzen ditu. Ederra eta misteriotsua den une poetiko horretan, mundua beste era batean aurkezten da gure begiradaren aurrean. Inoiz baino presenteago egiten da. Horregatik zinegile asko irteten gara ordu magiko horren bila. Pasio batek bultzaturik. Izan ere, une horretan, zinemaren ahalmena areagotu egiten da. Zinemak norberarekiko, besteekiko eta munduarekiko ezagutza, hausnarketa, emozioa, harridura zein galderak eragiteko daukan gaitasunaz ari gara hain zuzen ere.



Mikel Gurrea



Lur Olaizola

Udazkena. Lasarte-Oriako Oriarte BHI-ko ikasle bat bere aitak gidatutako kotxean doa. Hamabi urte ditu. Arratsaldeko zazpiak inguru dira eta, bat-batean, aitari mugikorra eskatzen dio. Isiltzeko esango dio. Zeruari erreparatuko dio eta kamera eskuartean duela *travelling* bat filmatuko du. Une horretan izan behar du. Hortxe eta orduantxe. Une hori filmatzeko desioa sentitu du. Dudarik gabe, ikasle hau zinegilea da, munduari zinegilearen begiradarekin begiratzen diolako. Gazte honek sentitutako bultzada da Núrria Aidelman eta Laia Colellek sortutako *Cinema en curs* ekimenak lehenengo egunetan ematen duen fruitu garrantzitsuenetako bat. Izan ere, zinema sorkuntzaren bihotzetik transmitzea da proiektuaren baitan dagoen

oinarria. Haien erreferente den Alain Bergalak bere *L'hypothèse cinéma* tratuan aipatu zuen legez, "zinemaren gakoak transmititzeko, erabaki horien bihotzean egon behar dugu".

Cinema en curs ekimena, *A Bao A Qu* elkarteko Aidelman eta Colellek Katalunian jarri zuten martxan orain dela hamabi urte. Hainbat lurraldetara zabaldu ostean, Euskal Herrira iritsi da ikasturte honetan. *Zinema (h)abian* izenpean, Tabakalera eta Elías Querejeta Zine Eskolaren eskutik. Denok batera, elkarrekin hasi ginen eta ari gara lehenengo esperientzia honekin ikasten. Amaia Beguiristain eta Aitor Olano irakasleak, Tabakalerako eta Elías Querejeta Zine Eskolako taldekideak eta gu geu, Mikel Gurrea (zine zuzendaria) eta Lur Olai-

zola (Tabakalerako ikus-entzunezko programaren koordinatzailea). Lerro hauek ekimena abian dela idazten ditugu; aitzindaria eta iraultzailea iruditzen zaigun proiektu batek sortzen duen zirrarekin.

Zer gertatzen da eskola publiko batean zinema sartzenean? Edo, beharbada zuzenagoa litzateke honako hau galdetzea: zer gertatzen da eskola publiko batean zinema *era honetan* sartzenean? Izan ere, nahiko arrunta da ikasgelan pelikulak tresna gisa erabiltzea. Gehienetan gaiak lantzeko erabili izan dira. Gogoan dauzkagu institutuan ikusi genituen filmak eta haiei lotutako ikasgaiak: *Splendor in the grass* 29-ko crack ekonomikoa lantzeko, *La lengua de las mariposas* Gerra Zibilaren ingu-



ruan sakontzeko edo *Christiane F.* drogen ondorioez hausnartzeko. *Zinema (h) abianek* beste harreman bat proposatzen du ordea zinemarekiko. Plano zein sekuentziak ikuskatu ondoren, ikasleek hitz egiten dute koloreari eta argiari buruz. Erreparatzen diote kameraren eta pertsonaiaren kokapenari, musikarik dagoen edo ez, soinua nolakoa den eta, noski, erabaki zinematografiko horiek baliatuz sortutako planoek sentiarazten dizkieten emozioez mintzatzen dira.


Dagoeneko Oriarte institutuko DBH 1. mailako hogeita bi ikaslek bost hilabete daramatzate zinemaren inguruan horrelako galderak egiten, erabaki zinematografikoen inguruan pentsatzen eta hauek praktikan jartzen. Hau da, zinema egiten. *Zinema (h)abian* proiektuaren

ezaugarri berezietako bat zinemagileen inplikazioa da. Eta arrazoia garbia da: pasioak bultzatzen gaitu zinemagintzara eta berebizikoa da ikasleei hori transmititzea. Horrela, ikasgelan, zinema zuzendaria, irakasleak eta ikasleak zinegile gara. Elkarrekin egiten dugu zinema, norberaren begirada sustatuz, talde-lana indartuz eta hori guztia partekatuz. Mugimenduak mugimendua eragiten duen bezalaxe, zinemak zinema eragiten duelako.

Metodologiaren beste ezaugarrietako bat zinema ikusi eta egitearen arteko konbinaketa da. Ikasleek lehenengo egunetik zirrargarriak diren zenbait zuzendarien plano eta sekuentziak ikuskatzen dituzte: David Perlov, Chantal Akerman, François Truffaut, Claire De-

nis, Hirokazu Koreeda, Raymond Depardon, Mercedes Álvarez, Charles Chaplin edo Michel Brault-enak, besteak beste. Zinegile horiek arreta jartzen dute, errealitatean, pertsonaietan, munduan eta emozioetan. Haien lanen atzean dauden erabaki zinematografikoak sakon aztertu eta gero, ikasle bakoitzak bere planoak filmatuko ditu, bere etxea, auzoa, herria, gertuko pertsonak, kaltetik topatzen dituztenak... Eratzen ari zaien zinegile-begirada berri horretaz baliatuz, betidanik inguruan izan dutena filmatuko dute, lehen aldiz ikusiko balute bezala. Beren errealitatea berriro ezagutuko dute zinemaren bitartez.

Gero, filmatzen dituzten lanak elkarrekin ikusi eta lantzen ditugu, bakarrik kolektibo bilakaraziz. Ikasle ba-



koitzak bere ekarpenak eskuzabal eta aurreiritzirik gabe egiten ditu. Ezer ez da zuzena ala okerra, baina filmaketa bakoitzaren atzean norberak hartutako erabakiak hor daude: nor edo zer filmatu eta non, eguneko zein ordutan eta zein plano mota erabiliz... Beren erreallitate filmatzeko pasio hori egitura-tzen dute zinemagintzaren erabakien bitartez, begirada bakoitzaren atzean dagoen konpromisoa onartuz. Institutuko ikasgela zinema-txoko bilakatu da ikasturte osorako eta guzti-guztiak dira horren erantzule, egile eta ikasle. Hogeita bi begiradak elkarturik abiatuko dira ikasturte amaierarako egin behar duten film-laburraren bila. Badakite bilaketa konplexua izango dela, baina erabakiak lan-taldean hartzeko prest daude.

Zinema (h)abian ekimenak ondorio boteretsu bat ere badu: ikasleek eskura ez dauzkaten zinegileen filmak egunerokotasunez ikusi eta ezagutzen dituzte. Ikuskatu eta haien erara zinema egiteak familiaritatean oinarritzen den elkarrizketa bat sortzen du ikasle eta zinegile horien artean. Jakina da gaur egun irudi eta edukiz gainezka bizi gara baina, gezurra badirudi ere, aurkitzeko, lortzeko eta ikusteko zailak diren filmak ere badaude. Garrantzitsua da ikasleek mota honetako zinema ere ikustea, beren bizitzetan tresna bat gehiago izango baita. Ziur aski, ekimen honetatik kanpo, gazte hauek ez lukete zinegile horien lana ikusteko aukerarik izango. Norberak erabakiko du etorkizunean ea zinema hori gustatzen zaion ala ez, eta zaletasun hori noraino garatu nahi duen. Batzuk zinemazale bilakatuko dira agian eta, nork daki, besteren batzuek, zinemagintzan jarraituko dute. Hemen

Ezkerrean, ikasle batek grabatutako 'travelling' batetik hartutako irudia. Eskuinean, ikasleak elkar filmatzen. 'Zinema (h)abian' egitasmoa ikasturte honetan ematen ari da lehen urratsak Lasarte-Orian eta esperientzia positiboa izaten ari da.

» **Aurkitzeko, lortzeko eta ikusteko zailak diren filmak badaude oraindik. Garrantzitsua da ikasleek mota honetako zinema ere ikustea**

» **Pasioak bultzatzen gaitu zinemagintzara eta berebizikoa da ikasleei hori transmititzea**

ez zaie ezer inposatuko. Norbera joango da zinemarekin daukan harremana bizitzeko eta definitzen. Orain, behinik behin, erabakia hartzeko aukera izango dute.

Eskola publiko batean zinema *era honetan* sartzeak daukan garrantzia garbi ikusi zuten Frantzia eta 2000. urtean Jack Langek, Hezkuntza ministroak, Catherine Tascarekin batera, *Les arts à l'école* proiektua jarri zuten martxan. Arteak eskola-sistemara eraman zituzten, zinemagintza barne. Eta ez zuten artea ulertu gaiak lantzeko baliabide soil gisa, eskolan izango zuen presentzia ez zuten artelanen data eta egileen

izen-zerrendetara mugatu; sorkuntza prozesu bezala ulertu zuten, arte-lan bakoitzaren atzean dauden sormen-erabakiak azaleratuz eta eskuragarri eginez; eta hortaz, erreallitatearekin eraikitzen ditugun harremanetan ezinbesteko tresna bilakatuz. Alain Bergala izan zen orduan zinema atalaren aholkulari eta urteetan landutako metodologia eraman zuen aurrera. Berarentzat garrantzitsua zen proiektua sendoa eta malgua izatea, ahalik eta leku gehienetara hedatzeko eta norberak berea egiteko. Horixe egin zuten Núria Aidelman eta Laia Colellek *Cinema en curs*-ekin eta hori bera ekarri nahi izan dugu Euskal Herrira beraien eskutik.

*Zinema (h)abian*eko lehen esperientzia hau ikasturtearekin batera bukatuko da. Tailerrean aurrera goaz eta datozen hilabeteak denona izango den film-laburra egiten emango ditugu. Hasiatik ikuskatutako hainbat zuzendariren lanak erreferentzia izanik, ikasleek beraiek filmatu dituzten txoko, soinu edo argi-orduak kontutan harturik. Hilabetetan bizitako esperientziak, elkarrekin egindako film laburrean gorputzuko dira. Kontsentsu bidez hartutako dozenaka erabakirekin egindako filma izango da, ikasleen ardura diren emozioak jorratuko dituen, haien begiradak batuko dituen, hots, zinemaren ahalmenak islatuko dituen.

Lehenengo esperientzia hau ikasturtearekin amaitzen den arren, badirudi hasiera besterik ez dela. Aurrerantzean, beharbada, hogeinaka gazte ibiliko dira kotxeetan beren gurasoekin. Agian, zeru bat filmatzeko nahia sentituko dute eta orduan, une horretan, zalantzarik gabe, zinemagileak izango dira. ■


Joseba Eskubi Izuaren balizko zientzia



Xabier Gantzarain
@gantzarain

Arte Ederretako irakaslea izateaz gain, artista ere bada Joseba Eskubi Munitis (Bilbo, 1967ko apirilaren 10a). Forma organikoak pintatzeko joera izan du beti, bere eskutik bizia hartzen duten organismoak, izuaren balizko zientzia baterako partikulak, auskalo zein mundutako izakiak, gauzakiak, gizakiak, auskalo zein infernutakoak. Eguneroko horretakoak, beharbada. Atzizkia da gakoa: -kiak. Zerbaiten zati, zerbaiten hondar, zerbaitetik eratorriak. Saihets batetik datozen saiheskiak.

Belleza Infinita argitaletxeak kaleratu zuen *Insomnia* liburu zoragarriarekin liluratu gintuen 2014an. Hainbat arte katalogotako erreprodukzioen gainean hasi zen margotzen, leun, urtsu, materiaren eta keinuaren sentsualtasuna nabarmenduz, hartan atsegin hartuz eta emanaz, baina ez atsegin gozo bat, arina, pisurik eta sakontasunik gabea, begiak eta bihotzak durduzaz eta dardaraz uzteko moduko atsegina baizik. Izuaren balizko zientzia baterako molekulak; eguneroko bizitzaren arrotasunari idatzitako ipuin baterako maiuskulak eta minuskulak.



IZENBURURIK GABE (2018)

Irudi digitala.

Aurrez ere bai, ondoren akaso gehiago, sarean joaten da jartzen bere lana Joseba Eskubi, bere webgunean ez ezik baita sozialak esaten diegun beste sare pelagiko horietan ere. Eta askorentzat, niretzat bederen, sare sozialetan egunean ikusiko dudak gauzarik ederrena izan ohi da bere koadro bat, bere irudi bat, batek daki zerekin eta zeren gainean pintatua, batek daki irudi digitala

baldin bada ere, hemengo irudi honen kasuan bezala. Zer axola du? Pintorea beti ari da pintatzen, baita pinturarik gabe ere.

Kultura palimpsesto erraldoi bat zela esan zuen norbaitek, behin eta berriz ezabatua, behin eta berriz gainetik idatzia. Halaxe izuaren balizko zientzia bat ere, egunerokoa: egunero hasi eta hasi, egunero hazi eta hazi. ■

KULTURKRITIKA

» LIBURUA

Identitarioa



Igor Estankona

Seamus Heaney (An Seanmhullach, Derry, 1939 –Dublin, 2013) Ipar Irlandako familia errepublikano batean jaio zen. Ingeles inperialismoak, zapalkuntza hark, betiko sartu zuen irlandar idazle abertzaleen zerrendan. Gaitzak hartua mendean, hala bizi izan zen, irlako beste idazle askoren antzera: “Irlandar poeta batek ingeles tradizio literariora helbidea dauka ingeles hizkuntza erabiltzeagatik, baina nekez sentituko da etxean moduan”.

Death of a Naturalist (1966) izan zen bere lehen poema liburua; ordurako Belfasten sortua zuten halako giro literario bat, giro politikoak zipriztindua: “Ez zen nire egin beharra, baina nire arazoa zen hura”. 1972tik hegoaldera etxer aldatua, han loratu zen sustraiak iparraldean eta hegoak mundu osoan dauzkan poesia egiazko bat, politikari muzin egin barik jolas egiten duena lirismoarekin, misterioa eta sinboloa errealtatearekin nahastuz. *North* (1975) izan zen loraldi horren biblia: “Antzinako errota baterako gaia,/ Eta nire bihotz-begiekin ikusi nuen/ Orekan dauden harrien mundu-lizar bat,/ Errotarriak orno-hezurren gisan pilaturik,/ Hezur-muin birrinduak zoru”. Eta iruditut zait Xabi Bordak egin duela itzulpen bat indartsua eta fina, aberatsa bezain eraginkorra.

Eta uste dut liburu hau disfrutatuko duela eguneroko naturaren opariez gozaten dakienak –dela belarraren berdea, lurraren sikua– eta konexio bat bilatzen dionak izadiari gure ongizatearekin, gure arazoekin.



Nobel Saria eman zioten 1995ean. Beñat Sarasolak hitzaurrean dioen moduan, pasa

Seamus Heaney

ANTOLOGIA

Itzultzailea: Xabi Borda
Susa, 2017

Seamus Heaney idazlea
(An Seanmhullach, Derry,
1939–Dublin, 2013).



den mendeko poeta handienetakoen artean kokatu zuen horrek. Baina lehendik zen Seamus Heaney bere herriko handietarik: “Non ur bareak/ Neagh lakuaren uharkan gainezka egiten zuen/ Mundu lauaren ertz batera iritsi balitz bezala/ Eta distiratsu jausten zen/ Bann ibaiaren etengabeko orainaldian”. Seamus Heaneyren metafora berriak ere zaharrak dira, mitoan dute sorburua, klasikoki zeltak dira bere molde greko-latindarrak. Agian horregatik irudituko zaizu lagun baten liburua ari zarela lehenengoz irakurtzen. Hasieran xaloda, gero lerroarteak bereizten hasiko zara.

Azkenik zeure buruari galdetuko diozu zelan, Derrykoa izanda, dakien hainbeste Euskal Herriaz. ■

OKERRAK ZUZEN: Egilearen argazki okerra publikatu zen joan den astean atal honetan: Pierre Bordazarre “Etxahun” Irurikoa zen argazkikoa. Pierre Topet “Etxahun” barkoxtarra behar zuen.

» DISKOA

Halabeharraren doinuak



Joxi Ubeda Goikoetxea

Oso ona *Morau*-ren disko berria. Oso onak hitzak, doinuak eta kantak. Bere zazpigarren diskoa da, eta bere lanik pertsonalena. Hunki-garria, mingotsa, barrenak mugiarazten ditu. Halabeharraren edo ezinbestearen doinuak dira. Nahigabea, atsekabea... Sentimenduak puri-purian ageri dira.

Bere amaren gaixotasuna eta zaintza dira kanten ardatza. Duela hamabi urtetik gora amari alzheimerra diagnostikatu ziotenetik orain dela urtebete inguru zendu zen arte, harekin goizero paseok bat emateko eta bidean hartutako argazki bat Facebooken jartzeko ohitura hartu zuen Andoni Tolosa *Morau*-k. Amaren gaixotasunarekin eta zaintzarekin loturiko bizipenak idatziz jaso zituen, eta ibilaldi eta testu horiek izan dira lan honetako kantuen abiapuntua.

Horrela, ohikoak dituen ironia eta umorea alde batera utzi ditu, azalean eta kontra-zelean ageri diren esaldietan izan ezik: *13 kantu belarritik hartzeko* irakur daiteke azalean, eta "Ez utzi kantuok haurren belarri eta eskuetatik hurbil. Ez dute errezetarik behar. Irakurri prospektua erabili baino lehen kontrazalean".

Lan xumea eta dotorea da. Ederra. Entzun aurretik ere nabarmena da, azala, CDa eta hitzen posterra biltzen dituen kartoizko kaxari erreparatuta. Artisautza lana da, artelana, *Morau*-k eta bere lagunek auzolanean eskuz egin, *do it yourself* (zuk zeuk egin ezazu) erara. Gainera, diskoak banan bana zigilatuta daude, argizari gorriarekin.

Kantuak ere modu horretan grabatu eta bere kasa argitaratu ditu. Peio Gorrotxategi

Egunsentiak alperrentzat MORAU

Autoekoizpena, 2018




aritu zen teknikari lanetan Ereinotzuko Aieka estudioan. 13 kanten artean Itoiz taldearen *Clash eta Pistols* kantaren bertsioa dago.

Aipagarriak dira Iñaki Martiarena *Mattin*-ek egin dituen ilustrazioak, eta Beñardo Goietxeren eta Giorgio Bassmattiren parte hartzea: Beñardo Goietxek (Mugaldekoak) koroak egin ditu kantuetan, eta Giorgio Bassmattik *Bi argazki* kantaren bertsio bat egin eta gitarra jo eta abestu du bertsio horretan. Ederki biribildu dute lan osoa.

Diskoa Morauren Bandacamp plataformaren bidez, Hernaniko hainbat lekutan eta jendarrereko emanaldietan bakarrik eskura daiteke. ■

Morau kantariak bere zazpigarren diskoa kaleratu du.

CONNY BEYREUTHER



Guadalupe txapeldun



Jon Aranburu Artano

@jonaranburu

Ez dut Hell Dorado moduko areto askorik ezagutzen. Rockari eskainitako tenplu bat da, estiloaren izkina guztiei begiratzen diena, asteburua joan asteburua etorri, 2001etik. Bertakoak eta kanpoakoak. Gau hotz hartan, berta-bertatik eta Andaluzia urrunetik etorri ziren.

Arrasatetik, Screammers and Sinners. Duela urtebete inguru izan ziren areto honetan bertan, eta orduan ere eman nuen haien berri. Urtebetean askorik ez dute aldatu euren emanaldia, ez bada bateriajolea aldatu dutelako. Rock urduria, azkarra. Punkik azkarrenaren oinordekoa egiten dute, eta egiten dituzten bertsioetan ere keinu bat baino gehiago egiten diote (Ramonés, RIP...). Gauaren abiorako, ezinhobea.

Ubedatik (Andaluzia), Guadalupe Plata. Joaquín Sabinaren herrikideak izanagatik, ez dute haren baterie antzarik, zorionez. “Lokaztutako lurpeko blues narkotikoa” horrelaxe definituko nuke *Rock de Luxe* aldizkarirako idatzi behar-

ko banu. Hirukotea dira: gitarrari eman eta kantatzen duena, bateria jotzen duena eta baxuarena egiten duena.

Gitarrari eman egiten dio Pedro de Dios, jo baino gehiago. Maisuki ateratzen dio zukua Fender Telecasterrari. Inork gutxi (Joseba Irazokik, akaso) aterako lizkiokeen doinu eta zaratak sortzen ditu eta kanta bera jotzeaz aparte, atmosferak sortzen ere dotore aritzen da. Abestu, berriz, lurpetik ariko balitz bezala egiten du, mikrofono berezi baten laguntzaz. Beno, kantua baino, lanturuak dira harenak, zorupean legokeen norbait hoska balego bezala.

Baterian, Carlos Jimenak oinarri erritmiko sendoa jartzen du, baina atmosferarako esku eta eskumutur ezinhobeak dituela ere nabarmen da. Jazzetik gertu dago bere estiloa. Ematen dio halako kutsu narkotiko bat jotzeko modu honek.

Eta baxuarena egiten, Paco Luis Martos. Eta nahita diot “baxuarena egiten”, ez baitu baxu moduan ezagutzen dugun

instrumenturik jotzen. Batzuetan gitarra batekin egiten du oinarri armonikoa, eta beste batzuetan Wikipedian “kontrabalde” esaten dioten soka bakarreko instrumentuarekin. Azken instrumentu honek merezi du azalpena: balde bat lurrean, makila bat eta soka bat hari lotuak makilari tirata soka tentsatzeko moduan, eta listo. Ezin oinarritzkoagoa. Eta, hala ere, kontrabaxu soinu dotorea ateratzen dio.

Hasi eta buka, emanaldi dotorea egin zuten jaendarrek. Euren bost lanetako kantua jo zituzten ordu eta erdi pasatxoko emanaldian, eta entzuleok bigarren aldiz taula gainera aterarazi genituenean, sorpresaz, Jake Holmesen *Dazed and Confused* kantua jo zuten, Led Zeppelinek berriak baino klase handiagoz, ia.

Kontzertu onenetan, Hell Doradoko liturgiak agintzen du bertako abade nagusi Juan Uriartek txapela mexikarra jantzi behar diela taldekideei. Txapel-dun agurtu zen Pedro de Dios. ■

GUADALUPE PLATAREN KONTZERTUA

Non: Gasteizko Hell Doradon, otsailaren 9an.

Ander Berrojalbiz. Musikari historiazalea



Historia eta musika batu ditu Ander Berrojalbizek (Durango, 1983), izan ere, musikaren historia irakasten du Durangoko kontserbatorioan, aintzinako musika berreskuratzen duen Khantoria taldean dihardu arrabita jotzaile eta historiari buruzko bi liburu argitaratu du azkenaldion Pamiela argitaletxean: *Los herejes de Amboto* (2016) eta Joseba Sarrionandiarekin batera idatzitako *Herejeen alaba* (2017).

“Botere erlijiosoaren eta politikoaren aurka altxatu ziren Durangoko herejeak”



Jabi Zabala

@sarean

ARGAZKIAK: ARITZ LOIOLA

Khantoriaren sustraieraino

“Formazioz bibolin jolea naiz, aintzinako musikari buruzko ikasketak egin nituen eta, 2010az geroztik Khantoria taldean nabil. Bertan, aintzinako musika berreskuratzeaz gain, hipotesiak lantzen ditugu, esaterako “Bereterretchen oinatzak” programan ikertu genuen zer harreman dagoen herri musikaren eta erdi aroko eliz musikaren artean. *Bereterretchen khantoria*-ren musikaren ezaugarriak guztiz erdi arokoak dira, iturri batzuen arabera Ambrosio deunak konposatu zuen doina IV. mendean”.

Herejeak disidente politikoak zirela esan izan duzu...

XV. mendean agertu ziren Durangaldeko lehen heresiak. Lehenengoan bi buru nabarmendu ziren: Alonso de Mella eta Guillén de Albesa frantziskotar erradikalak. Dokumentuen artean De Mellaren gutun bat dago, baita errepresioan parte hartutako durangar baten gutuna ere, Aita Santuari idatzia. Hor ikusten da botere erlijiosoaren eta politikoaren aurka altxatu zirela. Milenaristak ziren, Jainkoaren bigarren etorrera hurbil zegoela uste zuten eta orduan paradisua lurrean antolatuko zela, gizakien legeak eta eskumenak bertan behera geratuko ziren justiziazko mundua antolatuko zela, ondasunen jabegorik gabea.

Sexu libertinajeaz ere akusatu zituzten?

Orain ari naiz hori aztertzen. Egia da lizunkeriari buruz mintzo den lehenengo iturria epaiketa baino askoz geroagoa dela. Baliteke bigarren edo hirugarren epaiketan agertu izana, ez dakigu torturek nolako rola izan zuten. Kontua da doteen aurkako jarrera zutela.

Emakumeek dotea behar zuten ezkondu ahal izateko edo moja sartzeko. Doterik gabeko emakume batek oso zaila zuen ezkontzen merkatuan sartzeko, beraz, emakume askok baztertuta bukatzen zuten ezkontza legeengatik. Gizakien legeak bertan behera geratu behar ziren mundu bat aldarrikatzen zuen mugimendu batek ezkontza legeak kentzea eta kideen artean ezkondu gabe batzea ondo ikusiko zuen. De Mellak idatzitakoaren eta iturri zaharretatik ondoriozta daiteke libertinajearen aukera, baina ez dago aipamen zehatzik eta baliteke libertinajearena esajerazioa izatea.

Zer ziren Sanbenitoak?

Zaku moduko oihalak ziren, herejeei eskarniorako ezartzen zitzaizkienak, baina haiek hil ondoren elizan eskegitzen ziren oihal haiek, *manteta* izenarekin, euren oinordekoen lotsaizunerako. Hortik dator *tirar de la manta* esaera. Durangoko elizan 1809an frantsesak etorri arte egon ziren eskegita. Lehenago, 1616an durangar bat elizan sartu eta han zeuden oihalak erre zituen, se-



guruenik bere familia aipatzen zutelako. Ez zen lotsa kontua bakarrik, ondoko bi belaunaldietako ondorengoek ez zuten kargu publikorik hartzeko eskubiderik.

Dokumentuetan tortura aipatzen da?

Gutxitan. Mungiako emakume baten kasuaren aipamena dator 1508an egin zen beste epaiketa baten agirietan, Bizkaia osoan sorgin bila egin zen ikerketa baten baitan. Bertan irakur daiteke garrutxa gogor eman ziotela, baina andreak ez zuela aitortu. Erre egin zuten, hala ere.

Jendea bizirik erre zuten, baita gorpu hilak ere, gehienak emakumeak.

1500ean erretako hamaika lagunetatik bakarra zen gizonezkoa. Jada hilak ziren beste zazpi emakume ere kondenatu zituzten, gorpuak kanposantutik atera eta erre zituzten. Zergatik? Baten batek agian torturapean egindako aitortpenetan ardurak hildako bati leporatzea nahiago izan zuen. Herejeek ezin zuten lur santuan egon, horregatik lurpetik atera eta erre egiten zituzten haien gorpuak.

“Emakumeek dotea behar zuten ezkondu ahal izateko edo moja sartzeko, bestela oso zaila zuten ezkontzen merkatuan sartzea eta baztertuta bukatzen zuten”.

Misoginiarekin lotu duzu kondenatuak emakumeak izatea.

Lehen esan dudan moduan, oso mundu gogorra zen emakumeentzat. Heresien garai berean agertu zen beaterio bat Durangon, egun San Frantzisko komentua dagoen lekuan: emakume talde batek etxe abandonatua okupatu eta komunitatea sortu zuen 1439an, euren eskulanetatik eta limosnetatik bizi ahal izateko. Baztertutako emakumeak ziren, batzuk doterik gabeak eta ama ezkongabeak. San Frantziskoren araua onartu eta babesa eskatu zioten Aita Santuari, hainbat gizonek jazartzen zituztelako. Epaituak izan ziren 1442an baina garbi atera ziren orduan. Tokiko elizak jazarriak izan ziren, agian jendeak euren santutasuna ikusirik, limosna beraiei emango zien beldur.

Nola sortu zenuen, Joseba Sarrionandiarekin, Herejeen Alaba liburua?

Berak *Kristalezko Bihotza* kontakizuna jarri eta nik haren jatorria, historia kontatu dut. Ondoren, hiru testutan, Durangon egondako heresia kasu guztiak kontatu ditut: lehen aipatutakoak, 1700ean egondako Dominiko apostata baten kasua eta XIX. mendean egondako beste heresia bat, sorginen kasuak ahaztu gabe. Durangaldeko heterodoxo guztien bilduma da.

Ikuskizuna ere prestatu duzue liburuko edukiekin.

Bai, Ander Lipusek egiten duen irakurketa musikatua da, ez dramatizatua. Khantoriako Maider Lopezek eta biok XV. mendeko musika jarri diogu irakurketari eta bigarren zatia nire hitzaldia da, baina hitzaldiko aipu guztien ahotsa ere Lipusek jartzen du. Tabakalera egin genuen, gero Durangon, eta martxoaren 11n Bilboko Guggenheimen egingo dugu berriro, Loraldiaren baitan. ■



Ertzaintzaren ESAN sindikatura afiliatu da Charlton Heston

AEBetako Erriflearen Elkarteko presidente ohiak eta El Cid bezelako film pedagogikoen protagonistak bere azken urteak Euskal Herrian ematea erabaki du. Ardanzak Urdaibain duen txaletaren erreplika bat erosi du Arkaute ondoan eta segituan ESAN sindikatuaren atea jo du, euskal gizartean integratzeko asmoz. Erabaki honen zergatiaz galdetuta adierazi du: “Trumpekin marikoitzen ari dira AEBetan, nik benetako gizonak

nahi ditut, hanka tartean ondo jarritako bi pilota eta eskuan peloteroa dituztenak”. Cabacasen hiletak piztu zion gure herriarekiko interesa, eta ESANek berriaz errifleak kalera atera nahi dituela entzun zuenean ez zuen bi bider pentsatu. “Texasen beltz pare bat akabatu eta Alderdia gainera etortzen zaizu, hemen aldiz Klaudioren programan elkarriketa egiten dizute, it’s fucking crazy! I am Basque!”.

Mahal Dugu izenarekin, Nafarroako Podemosen eszizio bat jogurtak egiten hasi da

“Politika berria ezinezkoa da parlamentuan, oinarrietara itzuli nahi dugu”, esplikatu du Rafa Pastoral Nafarroako Podemoseko kide ohiak. Beste zenbait kideekin batera (tira, bere lehengusu batekin) alderdi moretik banandu da eta erakunde propioa sortu: Mahal Dugu. “Gure Hiritar Kontseilu sortu berriak gehiengo sinplez onartu du izen hori”, azaldu du Pastoralak eta gaineratu du


momentuz ez daukatela hauteskundeetara aurkezteko asmorik. “Jogurtak egingo ditugu”, azaldu dute komunikatu batean. “Laktosaren bidez nukleo irradiatzailetik aliatuak bilatuko ditugu behekoen artean, esne-mamitan bizi direnen kontra”. Mahala jogurt markak azaldu du ez dardela kezkatuta kompetenziaren izenarekin: “Gure irratiko spot-ari esker ‘Mahala, Mahala, goza ederra dala’ esaldia subli-

SAREAN ARRANTZATUA

Nora doaz garbigailuan galtzen diren galtzerdiak?



Arrain egunean oilasko izterrean



Mahal Duguko bi kide hurrengo hauteskundeetarako formula prestatzen.

minalki euskaldun guztien burmuinetan injektatuta dago, mwahahahahahaha!”, esplikatu dute.

Egunero lan berriak sareratzen ditugu
2.300 bideo baino gehiago ikusgai



Erreportajeak

Bost minutuko bideoak. Gai mamitsuak era argian azalduta.



Dokumentalak

Dokumental berri bat astero. Euskaraz edo euskarazko azpiztituluekin.



Web Telebistak

Euskal Herrian eta euskaraz egiten diren web telebista guztien biltokia.



Solasaldiak

Gai zehatzei buruzko eztabaidak, hitzaldiak eta mahai-inguruak, gogoetarako material gisa.



Film laburrak

Erabiltzaileek sarean zintzilikatutako euskarazko film laburren hautaketa.



Elkarrizketak

Zer esana eta pentsatua ematen duten pertsonekin solasean.



Ekitaldiak

Dantza, musika, antzerkia... askotariko emanaldiak klik batean.



Bideo herrikoiak

Euskal Herrian jendearen ekimenez egindako bideoen biltokia.

Zu ikusita
ikasten dut



Berdintasuna ikasi egiten da
Irakatsi berdintasuna

MARTXOAK 8, EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA